

AURKIBIDEA

1.- Sarrera

2.- Aztergaia

3.- Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren bilakaera historikoa

3.1.- Hastapenak eta bilakaera historikoa

3.2.- Laurogeiko hamarkada

3.3.- Laurogeita hamarreko hamarkada

4.- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen gaur egungo egoera

4.1.- Zenbait iritzi

4.2.- Gaur egungo egoera ulertzeko hurbilpenak

5.- Euskalduntze eta alfabetatze prozesuak

5.1.- Osagaiak

5.2.- Bilakaera

6.- Helduen euskalduntze-alfabetatzea aztergai izan duten beste azterketa batzuk

6.1- Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz (Pedro M. Legarreta “Albaro”)

6.2.- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak (SIADECO)

6.2.1.- Euskalduntzea

6.2.1.1.- Ondorio nagusiak

6.2.2.- Alfabetatzea

6.2.2.1.- Ondorio nagusiak

7.- Metodologia

7.1.- Erabilitako teknika

7.2.- Sakoneko elkarrizketa

7.3.- Elkarrizketatuen fitxa teknikoa

8.- Elkarrizketen analisisa

a) Lehenengo elkarrizketatua

b) Bigarren elkarrizketatua

c) Elkarrizketatik ateratako ondorioak (bien arteko erkaketa)

9.- Euskalduntze-alfabetatzea hobetzeko zenbait proposamen

10.- Eranskina

10.1.- Elkarrizketetan erabilitako gidoia

10.2.- Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia/kuadrillategi

11.- Bibliografia

1.-SARRERA

Euskararen normalizazio prozesuan zenbait arlo dira aintzakotzat hartu beharrekoak, eta horietariko bat helduen euskalduntze-alfabetatzearena dugu. Denek jakina da esparru estrategikoa dela erdaldunak direnak euskalduntzeari begira. Are gehiago, euskaldunen artean euskaldunberriek hartu duten pisua eta eskuratu duten gailentasuna ez da nolana hikoia; duela urte batzuetatik hona euskaldunberrien kopurua hazten ari da etengabe eta era nabarmen batean gainera. Hizkuntz gaitasunari dagokionez, hizkuntz irabaziak galerak baino handiagoak diren honetan azpimarratzekoa da euskalduntzeak jokatu duen papera; gurera ekarrita, helduen euskalduntze-alfabetatzea goraipatuko dugu.

Halaber, azken bolada honetan helduak euskaldundu eta alfabetatzeko ardura izan dutenak eta dutenak, euskaltegiak alegia, krisialdi batean murgilduta omen daude. Gero eta ikasle gutxiagok ematen du izena zentro horietan. Beraz, lehen esandakoari azken hau lotzen badiogu, helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen garrantzia itzela dela konturatuko gara. Beste aldetik ere, ezin dugu ahaztu gai honek daukan gaurkotasuna. Ez da iraganeko kontua, gaur egun gori-gorian dagoena, baizik. Are gehiago, irtenbideak eman behar litzaizkiokeen afera. Argi eta garbi geratu da, beraz, gain honek duen gaurkotasun maila eta gailentasuna.

Bestalde, horrelako lan bat egiterakoan asko izaten dira hasi baino lehen mahairatzen zaizkigun arazoak, korapiloak eta buruhausteak. Zelan bideratu lana ahalik eta osatuen egiteko?. Horixe da erantzun beharreko lehengo galdera. Argi dagoenez ezerezetik ezin gara abiatu, nolabaiteko babesak eduki behar dugu lanaren zutabeak jartzen hasteko. Teoria da gure babeslekua, hau da, oinarri teorikoa edo bibliografikoa ezinbesteko egiten zaigu edozein lan gauzatzeko orduan. Hala ere, hori ez da gure babes bakarra. Hori bai, lanaren lehengo atala osatzeko berrikuspen teorikoa izan da nagusi.

Horretarako, helduen euskalduntze-alfabetatzeari errebaso historikoa egitea bidezkoztat jo dut. Horren ildotik, aurretik egindako bi lan kontuan hartu izan ditut, batez ere, SIADECOK egindakoa. Bertan, helduen euskalduntze-alfabetatzearen protagonistak aztertzen ziren, hots, ikasten ari zirenak. Horrez gain, zenbait adituren iritziak osagarri eta aberasgarri lanarekiko suerta litezkeelarik, batu eta jaso egin ditut.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Horra hor, orduan, lanaren lehenengo atal honek (atal teorikoa edo bibliografikoa) okupatu duen tarte, 3. ataletik 6.era bitartekoa, biak barne, hain zuzen ere.

Bestalde, atal teorikoa ez ezik praktikoa edo metodologikoa ere behar-beharrezkoak izaten dira. Lan bat arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da lortu nahi dituzun emaitzak bete daitezela metodologiarekin asmatzea. Gurean metodologia kualitatiboari aukera eman diogu. Sakoneko elkarrizketak da jorratu dugun metodologia. Horretarako, helduen euskalduntze-alfabetatze munduan hainbat urtetan ibilitako pertsona bi elkarrizketatu egin ditut. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen barneko ikuspuntua da bilatu dudana, beraz, bertan lan egin dutenak eta lan egiten dutenak elkarrizketatu behar hori. Behin elkarrizketak eginda, hurrengo faseari ekin diot, hau da, elkarrizketen bitartez lortu dudana informazioaren analisiarena.

Guzti horren ostean, ondorioak ateratzeko ordua heldu zaigu.

Lan batean osagai asko omen daude, baina guri interesatzen zaiguna da, ahal den neurrian, ondorio erabilgarriak ateratzea. Gure kasuan helduen euskalduntze-alfabetatze mundua eraginkorragoa izateko proposamenak egitea izan dugu helburu, eta horixe izan da osagai guzti horiek nahastetik eratorri den ore trinkoa, hots, bilatu izan duguna.

Hauxe izan da, beraz, lan honen egitura. Beste ikuspuntu batzuetatik azter daitekeen gaia da hau, eta gai honi buruzko aztergai edozein izanda ere, interesgarria eta mamitsua izango delakoan nago.

2.- AZTERGAIA

Milurteko berrian, berrikuntza ugari astintzen du helduen euskalduntze-alfabetatzearen mundua. Ez da berria edozein hizkuntzaren berreskurapen prozesuan helduen partehartzeak duen garrantzia, eta Euskal Herrian aspalditik ari da horretan euskaltegi sare zabala. Herri bakoitzari errealitate soziolinguistiko bat dagokio, gureak ez dio baieztapen horri ihes egiten, beraz. Helduen euskalduntze-alfabetatzea dugu horren osagai.

Urteak igaro dira helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduak lanari ekin zionetik, hortaz, gizartean gertatutakoaren ildotik, aldaketak etengabeak izan dira. Hori dela eta, atzera begiratzeko sasoia dela ematen du ibilitakoaz hausnar dezagun eta egoera berrietara egokitu gaitzen; helduen euskalduntze-alfabetatzea egokitu dezagun, hobeto esanda.

Euskara normalizatzeko prozesuan lehenengo eta behin egin behar dena, eta orain arte egin izan dena, familiaren bidezko transmisioari eustea izan da. Hala ere, hori ez da nahikoa izan, beste zutabe batzuek osatu dute euskararen normalizazio prozesua, alegia; hezkuntzak itzelezko garrantzia izan du normalizazio prozesu horretan. Are gehiago, batzuek euskarak zituen gaitz guztietarako sendabelartzat hartu zuten hezkuntza eta Euskal Herriko zati batean (Euskal Autonomia Erkidegoan), administrazio berri bat azaltzeari esker eta horretatik eratorritako zenbait dekretu lagun, euskararen arazo larria konponduko zen. Ez dugu ahaztu behar Euskal Herriak hiru administrazio desberdin dituenik, beraz, egundoko eragina duela hiru lege izate horrek. Euskal Herrian ikastolen mugimendua garatuago egon da lurralde batzuetan besteetan baino, erabakigarria suertatuz euskara suspertzeari begira. Gaur egungo egoerak diosku euskarak normalizatu gabe jarraitzen duela eta helburua lortzeko estrategiak, perspektibak eta eragiteko erak birplanteatu behar direla. Gurera etorrira, normalizazio-prozesuan beste zutabe garrantzitsuenetariko bat zenak, hots, helduen euskalduntze-alfabetatzeak “*impasse*” egoeran dagoela dirudi. Tontorrera heldu da eta aldatsean behera doala. Zer egin horren aurrean egoeraren norabidea alda dadin?, Zelan eragin helduen euskalduntze-alfabetatze munduak aurrera egin dezan?.

Nire uste apalean lan honek inoiz baino gaurkotasun handiagoa du, hortaz, duen garrantzia. Lehen esan bezala, bada garaia egindakoaz hausnartzeko, iraganaz eta orainaz baliatuz etorkizuneko zirkunstantzia berrietara egokitze, baina ez nolabait.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Egin direnak eginda, zer da berritu, egokitu, mantendu, aldatu behar dena ikusi eta handik abiatuko da helduen euskalduntze-alfabetatze mundua, euskararen normalizazio prozesuan ahalik eta eraginkortasun handien laguntzeko asmoz. Ez da atzo goizekoa ikustea euskaltegietan izena eman dutenen kopurua apurka-apurka jaisten doala. Horrek, kontraesana dela ematen badu ere, euskararen normalizazio prozesuak aurrera egin ahala matrikulazioek behera egin behar baitzuten, zer pentsatu eskaintzen digu; Oraindik Euskal Herriko biztanle gehienak erdaldunak izanik, badago, orduan, nor euskaldundu eta alfabetatu.

Bestalde, sarri askotan aipatu izan da euskaltegietatik pasatu diren hainbat eta hainbat ikaslek ez dutela euskaraz egiten euskalduntze prozesua amaitzean. Azken finean euskalduntze-alfabetatze munduak hitzun aktiboa plazaratzea du helburu; eraginkortasunik eza leporatu zaio mugimendu horri. Euskaldungo osoak egin ezin izan duena edota egin nahi ez duena helduen euskalduntze-alfabetatzeari uztea bidegabe bezain arduragabe jokatzera izango litzateke gure aldetik. Horiek horrela, norberak dagokion ardura har dezan.

Helduen euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, zertan lagun diezaiokeen kaleratze prozesu hori arintxoago egiteko ikusi beharko genuke. Halaber, euskalduntzeak eta alfabetatzeak jokaturako paperak aztertu beharko lirarteke era berezitan batean. Badakigu jakin euskalduntzearen garrantzia sano handia dela, horretarako euskaldunen multzoan euskaldunberriek hartu duten gailentasunari so baino ez diogu egin behar; alfabetatzean sakondu beharra ezinbestekoa delakoan nago, beraz. Ene aburuz, alfabetatu gabeko euskaldun horiek irabaztea interesgarria izan daiteke euskalgintzaren etorkizuna oparagoa egiteko eta aldi berean ahozkoan ez den beste esparru batzuetan aktiboak irabazteko.

Horretaz guztiaz jardungo dut lan honetan.

Esandakoa laburbilduz, lan honi eman diodan izenburua hauxe da: “Etorkizunean helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak”. Hori berori izenburutzat hartu dudana izenburua eta hori berori lan honen helburu nagusia. Dena dela, lar orokorra iruditu litekeen helburuaz ez ezik beste azpihelburu batzuez ere hornituko dut lantxo hau. Izan ere, alfabetatzearen arloan egindako lanaren gaineko hausnarketa egiten ahaleginduko naiz, baita euskaltegietatik kalera ateratzean dagoen jauzia arintzeko lagungarri izan daitezkeen ekimenak lantzen ere.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Behin helburuak zehaztuta, erabili beharreko metodologia ere aipatzekoa da. Hori dela eta, nire ustez lanaren helburuarekin egokien bat datorren metodologia sakoneko elkarrizketena izango litzateke, beti oinarri teorikoa abiapuntutzat eta oinarritzat hartuta. Beharrezko egiten zait gai honi buruzko informazioa (aurretik egindako azterketak, ikerlanak, eta abar) urria izan dela esatea.

Gaiari berriro helduta, elkarrizketatuak urte dezentetan ibilitako pertsonak dira helduen euskalduntze-alfabetatzearen inguruan, eta eman diezaguketen ikuspuntua erabakigarria izango dela mugimendu horren barruan jazotako aldaketak ulertzerakoan zein balizko irtenbideak bilatzerakoan. Horrez gain, elkarrizketatuen jokalekuak kontrajarriak dira, hiria eta herria, hiriburua eta eskualdea, gune erdalduna eta gune euskalduna, Jorratu beharreko dimentsioak neurri handi batean, guztiz ezinezkoa baita, osatu egin dituzte elkarrizketatuen ezaugarriek, ñabartzeko aukerak daudela dakidan arren.

Hitz bitan esanda, helburu nagusia honako hauxe izango da:

- Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragotzeko proposamenak

Horren azpian ondorengo bi azpihelburu hauek leudeke:

- Alfabetatzeak jokatu duen papera eta joka lezakeena berrikustea

- Euskaltegitik kalerako zubia trinkotzeko balizko proposamenak

Esanak esan, hauxe izango litzateke aukeraturiko aztergaia eta horri heltzeko metodologia; lantxo honek ez dio egi borobilik aurkitu duenik inori sinestarazi nahi, lagungarri, osagarri eta aberasgarri suerta daitezkeen zenbait proposamena, ahalko balitz, plazaratu baizik.

3.- HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE MUGIMENDUAREN BILAKAERA HISTORIKOA

3.1.- Hastapenak eta bilakaera historikoa

Atal honetan, helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua euskararen aldeko kultura-mugimendu gisa aritu denetik aurrera kontuan hartuko dut, nahiz eta esparru horretan (euskalduntze-alfabetatzean, alegia) lehenagotik ere hainbatek eta hainbatek jardun.

Lehenengo alfabetatze-taldeak 1965. urtearen inguruan sortu ziren Euskaltzaindiak babestu eta bultzatuak, euskaldunei euren hizkuntzan idazten eta irakurtzen irakaste aldera. Urte hartan ere antolatu zen alfabetatzearen aldeko lehen kanpaina. Euskararen aldeko mugimendu kultural gisa jaio zen kultur erresistentzia, gizarte-eskolen eta abarren inguruan (frankismo garaiko kultur zanpaketa aurrez aurre zegoela). Talde hauek Euskal Herri osoan hedatu ziren heinean agerian jartzen hasi zen, halaber, euskararik ez zekiten euskal herritar multzo handiari euskara ikastearen beharra.

Beraz, Helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimendua Ikastolen mugimenduarekin bat¹, eta antzeko bilakaera pausoekin, 60. hamarkadaz geroztik sortu zen. Mota honetako alfabetatzerako eskaintza ezberdinak ikusiko ziren: gaueskolak, euskaltegiak eta barnetegiak ere zenbaitetan, helduen populazioaren beharrei egokituak beti ere².

¹ *Alfabetatzeaz* (ELE 8), AEK, Bilbo, 1991, 43-44. orri. Beharrezkoa iruditu zait ikastolen mugimenduari begiradaxoari egitea: "Ikastolen mugimenduak berebiziko garrantzia hartuko du alfabetatze eta euskalduntze prozesuan bai bere antolaketa, didaktika eta gizarte ezaugarriengatik, bai talde identitatearen kultur kodifikazioa dituen osagai ideologikoengatik.

Ikastolen bilakaeran ondorengo garaiak ikas daitezke:

1. Klandestinitatea (1943-1960).
2. Hedapena eta legeztapena (1960-1976).
3. Normalizazio juridikoa eta berdinketa publikoa (1978-1988).
4. Oinarrizko irakaskuntzan 1983an hasitako hizkuntz ereduen ezarpenak aukera ezberdinak eskainiko ditu haur populazioaren alfabetakuntzarako.

² *Ibidem*, 44. orri.

1967-1968an, *Euskalduntze* alorra ere jaio egin zen. 1968an, Euskaltzaindiak (Rikardo Arregi³ bitarteko zela), alfabetatzeari zegozkion problema guztiez arduratzeko Alfabetatze-Batzordea sortu zuen.

1974-1975 ikasturtean Gipuzkoako gaueskolen elkarte sortu zen, eta Iparraldera eta Nafarroara ere hedatua zen mugimendu hau koordinatu beharra sumatzen ari zen.

1975ean, Franco hilez geroztik, Arrasaten bilerak egiten ziren Euskaltzaindiarekin; ordura arteko gaueskolek beren egitekoaren kontzientzia argituz gizarte-eskola kutsua gainditu eta euskara ikas-irakasteko hizkuntz eskola izatea ikusi zuten. Bizkaiko ikasguek (euskaltegiak eta gaueskolak) koordinatzea erabaki zuten. Koordinakunde horrek lehendabiziko aldiz AEK izena hartu zuen⁴.

1976-77an, *Bai euskarari* kanpaina antolatu zuen Euskaltzaindiak, kanpainaren garapenerako Gaueskolen azpiegitura funtsezko bilakatu.

1976-1977an, orduko giroaren eraginagatik edo, %300eko gorakada eman zen gaueskoletan, %40-45eko abandonua ere bai. Orduantxe hasi ziren antolatzen ikastaldi didaktikoak.

1978an, Euskal Kontseilu Nagusiak, Euskaltzaindia ofizialtzea erabaki zuen. Gaueskolak (AEK), Euskaltzainditik kanpo geratu ziren.

1978an, didaktika-taldeak sortu ziren (Bizkaiko AEKkoa, *Okila*, *Lazkao*, ...) eta honako lanak aztertzeari ekin zioten:

- Hizkuntz metodologiaren azterketa.
- Euskaltegi berriak bultzatzeko erabakia (1975-1980 urteen artean, gaueskolak Euskaltegi bihurtze-bidean aurrerapauso handiak eman ziren, zerbitzu efikazagoa eskaintzea, demanda osoari erantzutea, demanda birsortzea ... helburu nagusiak izanik).
- AEKren egituraketa eta hedapena Euskal Herri mailan.

3.2.- Laurogeiko hamarkada

1979-1980an, Euskal Herri mailako Didaktika-Ikastaroak egin ziren. Ikaslegoaren gorakadak, euskara ikasteko motibazio eta metodologian emandako urrats

³ *Euskalgintzaren nondik norakoak*, Iñaki Arruti, HIZNETeko 9. irakasgaia, 10. orri. Ricardo Arregi Alfabetatze-Euskalduntze taldeen bultzatzaile nagusitzat izan zuten.

⁴ Informazioa internetetik hartu dut: www.aeknet.net helbidetik hain zuzen ere.

berriak optimismo metodologiko gisakoa sortu zuen: *ahalik eta hiztun gehien sortu epe laburrean*⁵.

1980an, *Korrika-1* egin zen.

1980-82an AEK eta Euskal Kontseiluaren arteko harremanak eman ziren; horrez gain, Euskal Herriko zenbait herritan helduen euskalduntze-alfabetatzerako Udal-Euskaltegiak egiten hasi ziren, hasiera batean, herri-iniziatibak zein instituzionalak bateratuz, geroan herri-ekimena baztertuz.

Garai honetan halaber, AEKk, “Herri-ikaskuntza” alternatibaren formulazioa egin zuen, honako hauek ardatz nagusiak izanik:

- Irakaskuntzaren autonomia.
- Herri-dinamikan sustraiturik egotea. Euskararen berreskurapenean herriaren kontzientzia eta esku-hartze zuzena bilatuko zuena.
- Lurraldetasuna (herri-iniziatiben zein instituzionalen konfluentzia bidez, nazio osoko erakunde publikoa osatzea) eta euskara berreskuratzeko plangintza orokorraren beharra.

1981ean ematen hasi ziren gerora etengabeko konponezinean egongo ziren bi erakundeen, HABE⁶ eta AEKren arteko lehen gatazkak. HABEk, diru publikoa erabiliz, emeki-emeki, subentzioen banaketan diskriminazio-politika bat garatu zuen⁷, AEK ekonomikoki ito nahian, guzti honek AEK beraren lana zailtzen eta oztopatzen zuelarik⁸. Horrez gain, ordura arte euskalgintzan militantzia lanetan aritutako hainbat lagunek administrazioaren zerbitzuetara bideratu zuten beren ekimena euskalgintzan hainbat hutsune sortuaz. Eginkizunak handitu eta zabaltzearekin batera, bestalde, eraginkortasuna handitu beharra ekarri zuen euskalgintzara eta horrekin normalizazio lanetan jardungo zutenen profesionalizazioa ezinbestekoa gertatu zen. Profesionalizazio hori urratsez urrats gertatu zen, lehenik irakaskuntzan, ondoren helduen euskalduntze-alfabetatzean eta euskal kulturgintzako zenbait alorretan, geroago, berriz, euskara elkarte eta antzeko mugimendu sozialetan⁹.

⁵ *Helduen euskara-ikaskuntza hizkuntz normalizazioari begira*, Erramun Osa, JAKIN aldizkaria 59. zk. (Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean), Tolosa, 1990. 37-38. orri.

⁶ HABE (Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea) 1981ean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak.

⁷ “1983an helduen euskara irakaskuntzarako arauak ezartzen zituen HABESEA legea onartu zuen Jaurlaritzak. Lege horrek herri mugimendua baztertzen zuen, eta gatazka iturri bilakatu zen”. Informazioa internetetik hartu dut: www.aeknet.net helbidetik hain zuzen ere.

⁸ *Ibidem*, 45-46. orri.

⁹ *Hizkuntza-normalkuntzarako plangintza estrategikoa*, Imanol Esnaola, HIZNETeko 17. irakasgaia, 66. orri.

Horrela, euskararen egoera tamalgarria ikusiz eta diglosiari aurre egin nahian, oinarritzko euskararen hitz egin zezakeen euskaldunberri-kopuru jakin bat atera beharra ikusi zen, metodologia komunikatiboaren ildoak zabaltzeko beharrezkoak "aitzakia" handienetako bat haxe izanik.

Lehia eta gatazka giroak arras ilundu zituen euskara berreskuratu eta normaltze aldera beharrezkoak ziren elkarlan egitasmoak. Lehia politikoak behar baino gehiagotan eragotzi zuen honelakoetan ezinbestekoa den lankidetzaren eta gutxieneko osagarritasuna.

Egoera horretan, administrazioa eta herri mugimendua eremu berean lanean ari zirela eta sarritan eginkizunak behar bezain argi bereizi gabe, sortu zen Euskal Kulturaren Batzarra¹⁰ (EKB). 1983ko martxoaren 12an aurkeztu zen Bergarako UNEDen¹¹.

Aipatutako guztiaz gain, Helduen Hezkuntz Alorreko Erakundeekin (Estatu-mailakoekin eta abar.) harremanak hasi ziren; horren ondorioz, inguru sozialean oinarria eta interbentzio-metodologiak ikertzen eta aztertzen hasi ziren¹².

1985-1986an, euskararen egoera diglosikoa bere horretan mantentzen zela zioten datuek. Baziren pentsatzen zutenak, administrazioek ez zutelako inongo asmorik neurriko bitartekorik jartzeko helduen euskalduntze-alfabetatzean. Areago oraindik, Erkidego Autonomiako HABEk, euskaldun alfabetatugaien demanda osoari erantzuteko borondatea izan beharrean, helduen euskalduntze-alfabetatze sailaren kontrolerako zein burokratizaziorako tresna zela zekusatzen, sailekoen lana bultzatu beharrean, beratu oztopatu eta eragozteko ezarria izan zen tresna, alegia.

1986an eman zen, azken urteotan eman den ikasle-kopururik altuena, 1986 urteaz geroztik beherakada etengabea jasan behar izango dute lan honetan dabilzan guztiek.

Aipatutakoaz gain, euskararen ikaskuntza konbentzionalak zein metodo konbentzionalak euskararen normalizazio-beharrei erantzuteko zuten ezintasuna agerian egonik, bestelako bideak urratzen hasi ziren. Bide horiek urratzerako, ezinbesteko

¹⁰ *Ibidem*, 66. orri.

¹¹ *Euskalgintzaren nondik norakoak*, 14. orri. Honela definitu zuen bere burua:

“- Euskal Kulturaren diharduten sail ezberdinetako talde eta elkarte herritarren topagune eta elkargunea.

- Kultur erakundea, inolako talde politiko nahiz soziali lotugabea (...)

- Euskal gizartea euskarari buruz jaberazteko, eta euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatzeko, eskakizun, ekintza, eta plangintza bateratutarako oinarri zabala”.

¹² *Helduen euskara-ikaskuntza hizkuntz normalizazioari begira*, Erramun Osa, 46. orri.

erreferentzia bilakatu ziren hizkuntza minorizatueta emandako esperientziak eta helduen hezkuntza iraunkorrean oinarritutako interbentzio-metodologiak¹³.

1989-1990ean, helduen euskalduntze-alfabetatzearen ikuspegi eta estrategia ezberdinetatik abiatuak, helduen euskalduntze-alfabetatzearen kinka larria ikusiz, herri-iniziatibaz, pribatuz zein instituzionalez sorturiko erakunde eta euskaltegien batasunaren premia ikusten hasi zen. Urteetako ezinikusiak eta enfrentamenduak albo batera, indarrak batuz helduen euskalduntze-alfabetatzearen zein Euskal Herriaren berreuskalduntzearen erronkari erantzuteko.

Ezberdintzen eta batzuetan enfrentatzen zituzten puntuetan baino helburuarekiko hartutako konpromisoa indartsuago bilakatu, EKBren baitan batasun-maila bat erdietsiz.

3.3.- Laurogeita hamarreko hamarkada

90eko hamarkadan matrikulazio datuek goraka egin zuten berriz 1986. urtean erpina ukitu eta gero, baina poliki-poliki. Euskaltegi berriak hasi ziren agertzen Hego Euskal Herrian. Iparraldean esate baterako AEKk baino ez dihardu helduen euskalduntze-alfabetatze arloan.

1993. urtean Eusko Jaurlaritza eta AEKren arteko harremanak are gehiago ozpindu ziren Kultura Sailak libre izaerako euskaltegiak diru-laguntzarik gabe uzteko erabaki hartu zuenean.

1995eko abenduan, ordea, zorioneko hitzarmen markoa sinatu zuten bi aldeek, aro berri bati hasiera emanez. Nafarroan “Vascuencearen Legea” eta helduen euskalduntzea arautzen duen dekretua daude indarrean, eta biek ere ez diete euskararen beharrei erantzuten, urtetik urtera murrizten diren diru-laguntza urrietan gauzatuz. Iparraldean are okerrago: frantziar administrazioak ez du ez AEKren lana ez euskararen ofizialtasuna bera ere onartzen.

Bestalde, azpiegituren eta prestakuntzaren aldetik hamarkada honetan euskaltegiek egindako aurrerapenak nabariak izan dira, baina hori ez da matrikulazioen kopuruan islatu.

¹³ *Ibidem*, 51-52. orri.

4.-HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAREN GAUR EGUNGO**EGOERA**

Gaur egun, helduen euskalduntze-alfabetatzeak inoiz baino baliabide eta azpiegitura hobeak ditu, irakas-materialak inoiz baino landuago eta garatuago daude. Matrikulazioek, aldiz, beheranzko joera jarraitzen dute eta hori zenbait adituren kezka bide bihurtu da.

	Euskal AE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Δ%		
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%			
Guztira											
Zentroak	121	100	15	100	58	100	48	100	-12,3		
Ikasleak(1)	37.141	100	6.342	100	20.303	100	11.066	100	-11,2		
Matrikulak	45.987	100	7.652	100	25.400	100	12.935	100	-11,2		
Ikastorudak (mila)	10.074	100	1.685	100	5.667	100	2.723	100	-10,0		
Talde orduak	915.549	100	152.162	100	496.167	100	267.220	100	-7,2		
Publikoak											
Zentroak	40	33,1	1	6,7	21	36,2	18	37,5	0,0		
Ikasleak(1)	10.101	27,2	239	3,8	5.517	27,2	4.353	39,3	-12,0		
Matrikulak	10.802	23,5	285	3,7	5.921	23,3	4.596	35,5	-12,2		
Ikastorudak (mila)	2.566	25,5	76	4,5	1.540	27,2	950	34,9	-11,8		
Talde orduak	233.735	25,5	7.388	4,9	129.860	26,2	96.487	36,1	-5,6		
Homologatuak											
Zentroak	70	57,9	13	86,7	32	55,2	25	52,1	2,9		
Ikasleak(1)	26.287	69,6	6.057	95,4	14.372	69,4	6.331	56,6	-5,4		
Matrikulak	33.777	73,4	7.312	95,6	18.633	73,4	7.832	60,5	-6,3		
Ikastorudak (mila)	7.211	71,6	1.599	94,9	3.942	69,6	1.670	61,3	-5,1		
Talde orduak	648.899	70,9	143.389	94,2	346.322	69,8	159.188	59,6	-1,7		
Libreak											
Zentroak	11	9,1	1	6,7	5	8,6	5	10,4	-63,3		
Ikasleak(1)	1.393	3,8	55	0,9	832	4,1	506	4,6	-58,7		
Matrikulak	1.408	3,1	55	0,7	846	3,3	507	3,9	-59,0		
Ikastorudak (mila)	298	3,0	10	0,6	185	3,3	103	3,8	-56,2		
Talde orduak	32.915	3,6	1.385	0,9	19.985	4,0	11.545	4,3	-58,2		

(1)Irakasmilla askotatik igarotzen den ikasle bat behin bakarrik zenbatzen da gutzitza. *Iturria: Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE).*

Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegokoak baino ez izan, datuek argi eta garbi adierazten digute azken urteotako joera zein izan den, eta konponbiderik ezean, datozen

urteetan zein izango den. Beheranzko joera maila eta arlo guztietan azaltzen da, helduen alfabetatze eta euskalduntze osoan eragina duen fenomenoaren aurrean gaude, beraz.

Ezagutza eta gaitasuna dira oraindik ere Iparraldeko eta Nafarroako erronkarik nagusietarikoak.

4.1.- Zenbait iritzi

Urteak joan urteak etorri, helduen euskalduntze-alfabetatzearen inguruan hainbat kontu ibili dira bueltaka, izandako aldaketak ugariak izan dira eta mugimendu hau egoera berrietara egokitu da, nolabait; hori bai, zein puntutaraino egokitzapenak sortutako beharrian berriei edo egondako aldaketei erantzun diententz ikustea funtsezkoa izango da gerora bidezko analisiak egiterakoan. Hori dela eta, zenbait adituren iritziak batzeak, lanarekiko lagungarri delakoan, gaur egungo egoeraren nondik norakoak apur bat hobeto ezagutzeko abagunea emango digu¹⁴.

Aldaketak aldaketa, oraindik ere Helduen euskalduntze-alfabetatzeak garrantzi handikoa izaten jarraitzen du euskararen normalizazio prozesuan. Euskal Herriko lurralde guztietan milaka eta milaka pertsona euskaldundu barik daude. Horrez gain, euskal gizartearen populazioaren gehiengoa pertsona helduez dago osatuta gaur egun. Jaiotze tasak zirela-eta, garai batean pentsatzen zen akaso adin piramidearen iraulketa egon zitekeela, baina gaur egun piramide horrek alderantzizkoa erakusten digu; horiek, beraz, euskara ikasi behar badute eskolatik kanpo izango da. Hizkuntzaren iraupenera eta hizkuntz aberastasunari begira izugarritzko garrantzia du Sagrario Alemanen ustez¹⁵.

Eskolan ez zaio eusten aberastasunaren helburuari, helburuak beste batzuk dira eta.

¹⁴ Argia aldizkariaren 1759. alearekin batera (2000ko apirilaren 23koa) Larrun gehigarria zetorren. Bertan helduen euskalduntze-alfabetatzearen gainean zenbait adituk euren iritziak mahaigaineratu zituzten Nik bertatik informazioa jaso eta erabili egin dut ataltxo hau osatzeko asmoz, beraz, iritzi guztiak Larrun gehigarrian agertutikoak dira.

¹⁵ Sagrario Aleman Arturo Kanpion euskaltegiko arduraduna da. Etxalekun jaioa 1952an. Iruñean bizi da eta farmazia ikasketak egin bazituen ere bere bizitza profesionala euskalduntze-alfabetatzeari eskaini dio lehenbiziko gau-eskoletatik hasi, AEKn jarraituz eta IKAn gaur egun. 1981. urtetik gaurdaino Iruñeko Arturo Kanpion euskaltegian ari da. EHEko sorrera taldean izan zen Nafarroan eta politikan ere eginak ditu zenbait urrats.

Jokin Azkuek¹⁶ dioskunez tamainagatik ere izugarrizko garrantzia dauka helduen euskalduntze-alfabetatzeak, hezkuntzaz aparte euskalduntzean dagoen eremurik handiena baita.

Beste aldetik ere, eskolaren osagarri moduan garrantzizkoa da helduen euskalduntze-alfabetatzea eta hori da Euskal Herriko lurralde batzuetan gertatzen dena, Iparraldeko egoera lekuko. Jakes Bortairuren¹⁷ aburuz, eskolak maila batean huts egiten du euskalduntzean, arrazoi desberdinak medio irakaskuntzaren ziklo guztiak ez baitira betetzen (eskaintzarik ez delako, ingurumen erdalduna, ...). Hor, bere iritziz, helduen euskalduntze-alfabetatze munduak badu zerbait egiteko, ez bakarrik euskalduntze-mailan, baita hobekuntzan ere.

Ikusi ahal izan dugunez, oraindino hainbat arrazoi tartean, helduen euskalduntze-alfabetatzea sano garrantzitsua da euskara normalizatzerakoan, baita berreuskalduntzeko prozesuan gakoetariko bat ere.

Hala ere horrek, funtsezkoa izateari eutsi izanak, ez du zertan oztopoa izan behar lehengo egoera eta gaur egungoa erkatzerakoan. Are gehiago, izandako aldaketa guztiak aintzat hartuta, denboran bananduriko bi garai horiek aztertzeraz ahalbideratu behar gaitu gaurko benetako egoeraz ohar gaitzen.

Hortaz, Jokin Azkueren ustez, Ikasleriak eta horren lan baldintzek hobera egin dute nabarmen; garai bateko militantziazatik duintasunerako bidean jauzi handia egin da. Irakasleen formazioa: garai bateko bizpahiru adituetatik sare zabal bat osatzera pasatu da. Gainera, oro har, euskaltegi bakoitzak bere formazio plana egiten du gaur egun, eta lehen ez zen egiten. Bestalde, euskaltegien azpiegiturak txukunak direla aitortzen du Jokinek.

Erramun Osak lau puntuk osatutako planteamendua egiten du¹⁸ azken hamar urteotako bilakaera aztertzerakoan.

¹⁶ Jokin Azkue da HABEko zuzendaria. Asteasun jaioa duela 39 urte, gaur egun Tolosan bizi da. Psikologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. UEUn ere aritu izan da irakasle gisa. Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Aholku Batzordeko kide ere bada gaur egun. 1986tik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetako hizkuntz plangintzan aritu zen lanean eta 1996ko urtariletik aurrera Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundearen zuzendari zereginean ari da.

¹⁷ Jakes Bortairu Iparraldeko AEK-ko arduraduna da. Parisen sortu zen eta 43 urte dauzka. Aita euskalduna zuen eta 1965ean etorri zen bizitzera Euskal Herrira. Soziologia ikasketak egin ditu eta ikusmolde berezia du euskalduntze-alfabetatzeaz aritzeko: euskaldunberria da eta euskaltegietan ibilia da euskara ikasten; AEKn euskaldundu zen, hain zuzen. 1987tik aurrera irakasle lanari ekin zion AEKn, liberatu gisa eta gaur egun bertako arduraduna da.

¹⁸ Erramun Osa Bizkaiko AEK-ko arduraduna da. Ondarroan jaiotakoa 1964a baina gaur egun Barakaldon bizi da. Bere bizitza erdia AEKri eskaini dio, 17 urterekin hasi zen AEKn eta bertan jarraitzen

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Batetik, euskaltegiara doazen ikasleak dagoeneko euskara maila batekin doaz, txikiagoa edo handiagoa, baina garai batean ez bezala, euskaltegiak ikas prozesuan aurrera egiteko tresnak bihurtu dira. Nafarroan eta Iparraldean, ordea, ez da gauza bera gertatzen; bere iritziz, hauetan oraindik jendea batik bat hasierako urratsetara hurbiltzen baita.

Bigarrenik, gero eta pertsona helduagoak hurbiltzen dira euskaltegiara, honek dakarren guztiarekin, exijentzia handiagoa, eskakizun desberdinak, ...

Hirugarrenez, eskarian ematen den bilakaera azpimarratu egiten du Erramunek eskaria gero eta anitzagoa dela esanez.

Alfabetatze arloa da laugarren puntua. Eskaria oso anitza denez gero, oso zaila da alfabetatze planteamendu bat egitea.

Beste aldetik, helduen euskalduntze-alfabetatzearen dimentsio ekonomikoa eta bertan lan egiten duten langile kopurua ezagutzea ikuspegi orokorra osatzeari begira interesgarria izan daiteke. Beraz, hona hemen, Iparraldea izan ezik, Euskal Herriko gainontzeko lurraldeen egoera azaltzen duen taula¹⁹:

EAE	Dimentsio ekonomikoa	Langile kopurua
Araba	743	300
Bizkaia	3.175	886
Gipuzkoa	2.044	599
Nafarroa (IKA soilik)	110	44
GUZTIRA	6.072*	1.829

Iturria: HABE, IKA

* Kopuruak milioi pezetetan adierazita daude.

Hauxe izango litzateke, orduan, helduen euskalduntze-alfabetatzearen egoera aditu batzuen ustez . Lurralde batetik bestera bestelako datuak, ñabardurak eta ezaugarriak ikus ditzakegun heinean euskarak ere arras ezberdinak diren zenbait

du gaur egun, 19 urte geroago. Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Aholku Batzordeko kide da; batzorde honetan, euskararen geroratzearen ataleko batzordeburu ere bada. UEUko kide eta Barakaldoko Sasiburu euskara taldeko kide. Kurrikuluetarako didaktikaren inguruko artikuluko ugari idatzi du.

¹⁹ *Euskalgintzaren baliabideak*, Jose Mari Zendoia, HIZNETeko 18. irakasgaia, 11. orri. Taula honek ez dakartza EAeko irakaskuntza euskalduntzeko programaren barnean irakasleentzako euskara-eskolak. Era berean, falta dira Nafarroako eta Iparraldeko AEK erakundearen datuak. Horiek sartuta, urteko gastuak 6.200 milioi pezeta ingurukoak izango dira.

egoerara egokitu beharra du; Horrez gain, ekonomiaren ikuspegiak ere orain arte kontuan hartu ez den eta kontuan hartu beharrekoa zen ezkutuko gailentasuna aitortzen dio euskalduntze-alfabetatze mugimendu honi. Garrantziaren gaurkotasunak eta gaurkotasunaren garrantzia elkarri elikatzen dioten kontzeptuek argi eta garbi erakusten digute etorkizunean ere helduen euskalduntze-alfabetatzearen ingurukoa aintzakotzat hartu beharrekoa izango dela.

4.2.- Gaur egungo egoera ulertzeko hurbilpenak

Behin gaur egungo egoerari buruzko nolabaiteko ezagutza eskuratuta eta zenbait adituren iritziz jorratzearen ildoari jarraituz, gerorako sakoneko elkarrizketak zentratzeko asmoz, Euskaldunon Egunkariak²⁰ ekarritako artikulu bateko arrazoiak ekarri ditut neurera. Aipatutako arrazoiak ustezkoak baino ez dira eta nire aldetik ez dago inongo asmorik horiek behin betiko arrazoiak bihurtzeko.

Horiek horrela, aipatzen diren arrazoietariko batzuk honakoak dira:

- Demografiaren aldaketa (Euskal Herria da Europako jaiotze-tasa baxuena duen herria).
- Langabeziaren murriztea eta lanaren ezaugarri berriak²¹.
- Egoera politikoa²².
- Eguno egoerara oraindik egokitu ez izana.

²⁰ 2000ko abenduaren 26an argitaratutako Euskaldunon Egunkariak ekarritako artikuluaren izenburua honako hau da: “*Beherakada hausnartzen*”.

²¹ Rufino Iraolak (Udal Euskaltegiako ordezkariak) horrelaxe azaltzen du: “*Orain langile asko etortzen da euskaltegiara, batez ere errelebuan dabilen jendea. Maila bereko talde bat baino gehiago edukitzera behartzen gaitu, goizez eta arratsaldez*”. Koro Azkona (Nafarroako Gobernuaren Miluze euskaltegiko zuzendaria), bestalde, harantzago doa argudio horretan. Bere ustez, behin-behinekotasun egoerak, kontratu laburren gehitzeak, bederatzi hilabetera begirako planik ezin egin izateak jaitsiera dakar. Horrez gain, Rufino Iraolaren iritziz, langabeziak behera egiteak eragiten du euskaltegiako martxan.

5.- EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE PROZESUAK

5.1.- Osagaiak

Lehenengo eta behin esan behar da euskalduntze prozesuaren osagaiak “prozesu” baten barruan daudela, nolabaiteko logikari erantzun egiten diotela. Euskara ikasteko premia pizten den momentutik euskara ikasi arte gauza asko gertatzen dira edota gertatu beharko lirateke prozesu osoa gara dadin. Euskalduntze prozesua ez da berez sortzen den gauza bat; badaude tartean zenbait osagaik hori gauzatu ahal izateko eragiten dutenak.

Gizarte baldintzek euskalduntze premia pizten dute, hau da, euskara ikasteko gogoia eta premia piztu behar da eta hori gizarte baldintzei dagokie, horixe da euren ardura. Nolabaiteko motibazioa sortu behar da. J.M. Sanchez Carrion “Txepetx”ek esaten zuen:

“Un idioma se aprende por tres factores básicos que son la *motivación* (*Eusk. Motibazioa*), la percepción (*Eusk. Ezagutza*) y el ejercicio o uso (*Eusk. Erabilpena*).”²³

Euskararen aldeko motibazioek ikasleak euskara ikastera bultzatzen dituzte. Hizkuntzaren ikaskuntzari dagokiolarik pertsona helduen artean motibazioa abiapuntua da, hots, motibaziorik ez dagoenean ezin daiteke bigarren hizkuntza ikasi²⁴. Txepetxen ustez, motibazioa emoziozko gauza zen:

“... Pero *lo que llamamos motivación*, con todo lo que contiene (las expectativas, las actitudes hacia la lengua, intereses, valoración, auto-gratificación, etc.) es, básicamente, *una actitud emocional*.”²⁵

Behin ikasten hasiz gero, euskalduntze prozesuan gizarteko agente eragileak aipatu behar ditugu, ikasleak eta irakasleak, hain zuzen ere; bi prozesu mota daude euskalduntze prozesu nagusian. Alde batetik ikas prozesua, eta bestetik, hizkuntz

²² Bigarren mailako faktore moduan ikusten dute baina Joxerra Olanok (Nafarroako IKako irakasleak) dioen legez “*Agian egoera politikoak gehiegi ere ez duela laguntzen memento honetan, hori ere baliteke*”.


²³ *Un futuro para nuestro pasado*. Jose M^a Sánchez Carrión “Txepetx”, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, Donostia, 35. orri.

²⁴ *Motibazioa eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza*, Ana Eizagirre eta Javier Isasi, JAKIN aldizkaria 59. zk. (Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean), Tolosa, 1990. 18. orri.

²⁵ *Un futuro para nuestro pasado*. Jose M^a Sánchez Carrión “Txepetx”, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, Donostia, 117. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Beraz, motibazioek, gizarte agenteek eta prozesuek elkarri eragiten diote eta osagai horiek eta gizarte balditzek ere elkarri eragiten diote. Laburbiltzeko ikus dezagun ondorengo grafikoa.



5.2.- Bilakaera

Lehen aipatutako lantxoan (Iñaki Martinez de Lunak egindako horretan) unean uneko gizarte baldintzak ikusteko zenbait irizpide agertzen dira. Berak Bergarako egoera baino ez du kontuan hartzen, baina bertatik Euskal Herriko beste leku batzuetara ere extrapola ditzakegu irizpideak. Hara, Euskal Herriko zenbait txokotan euskararen statusa aldatu egin da: debekatuta edo erdi debekatuta egotetik status ofiziala lortzera pasatu da. Beste kasu batzuetan, esate baterako, norberaren baliabide hutsa izatetik enpresek eta administrazioak laguntza ematera pasatu da. Ikasleen gaitasun-abiapuntuari dagokionez aldaketak ere gertatu dira; lehen asko eta asko zerotik hasten ziren²⁷ ikasten eta orain, berriz, gorago dauden mailetatik hasten dira. Motibazioaren inguruan ere gauzak ez dira lehen ziren bezalakoak, beraz, motibazioa askotan aldatu egin da: *Gure hizkuntza berreskuratzeko asmotik lanerako hizkuntza lagungarri bezala ere ikustera pasatu gara. Bestetik, gizartean hasiera batean zegoen euskararen aldeko grina baretu egin da (kanpaina eta ekimen zehatzen inguruan izan ezik), baina hizkuntz horren premia neurri batean areagotu da²⁸. Hala ere, unean uneko gizarte baldintzetan izandako aldaketez esan behar da Bergarako kasua Euskal Autonomia Erkidegoaren egoeran testuinguratu behar dugula, zeren eta Iparraldeko eta Nafarroako egoerak ez baitu bat egiten jazotako aldaketa askorekin.*

Aipatutakoa Euskal Herriko herri eta auzo guztietan berdin-berdin gertatzen ez bazen ere, badago unean uneko gizarte baldintza bat aldatu egin dena, irakasleen prestakuntza, hain zuzen ere. Hor ez dago inolako zalantzarik. Baina ez hori bakarrik, helduen euskalduntze-alfabetatzeak aurrerapauso sendoak eman ditu azken urteetan irakasleriaren prestakuntzan; baita material sorkuntzan, azpiegituren indartzean, teknologia berrien egokitzapenean, ikerkuntzan ere. Gainera, inoiz baino emaitza hobekiak lortzen ari dira zeren eta euskalduntze prozesua gero eta jende gehiagok amaitzen baitu²⁹.

Esanak esan, lehen ikusitako guztiak zer pentsatu eman beharko liguke; helduen euskalduntze-alfabetatzeak zein motatako bilakaera izan duen eta ea bilakatze horri tamainako erantzuna eman zaion. Kontuak kontu bakoitzari inguruko gizarte baldintzek

²⁷ Erramun Osan 4. atalean esandakoarekin bat egiten du, beraz, kontuan hartzekoa da kontraesana izan badaiteke ere.

²⁸ *Ibidem*, 6. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

modu batez eragina egiten diote, hortaz, gero eta premiazkoago ikusten den egokitu behar hori. Izan ere, atal honetan ikusi ahal izan dugunez etengabea ondokoari begira egon behar dugu gerta litezkeen aldaketek gaindi ez gaitzaten. Horra hor, bada, helduen euskalduntze-alfabetatzearen prozesuaren nondik norakoa.

Ataltxo honi amaiera emateko, lehen esan dudan bezala, jakin behar dugu motibazioa dela ikasleengan sortarazi eta lan dezakegun faktore bakarrenetarikoa.

²⁹ Erramun Osan esana 2000ko abenduaren 26ko Euskaldunon Egunkarian agertutako artikuluan.

6.- HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA AZTERGAI IZAN DUTEN BESTE AZTERKETA BATZUK

Egia esan, gai honen gaineko azterketarik ez dagoenez ezinbestekoa egiten zaigu dagoena edo daudenak aipatzea. Arlo hau interesgarria bezain korapilatsua dugu, hau da, ez dakizkigu zehatz-mehatz helduen euskalduntze-alfabetatze munduak bere magalean biltzen duenaren mugak eta ezaugarriak. Nik hainbat euskaltegik bultzatuta eta EKBren koordinaziopean, SIADECO etxeak egindako helduen euskalduntze-alfabetatzearen egoerari buruzko azterketa³⁰ oinarritzat hartu du. Horrek ez du esan nahi bestelako lanak ere kontuan hartu ez ditudanik. Esate baterako, Pedro M. Legarretak idatzitako “Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz” artikulua ere kontuan hartu dut. Beraz, denborari kasu eginez zaharretik berrienera egituratu dut lanaren ataltxo hau.

6.1- Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz³¹ (Pedro M. Legarreta “Albaro”)

Azterketa honek eskaintzen diguna da Francoren osteko helduen alfabetatze eta euskalduntzearen mugimenduaren lehen-lehenengo urratsak. Bertan jasotako datuak ez dira zehatzak baina hurbilpen bat egiteko baliagarriak izan ziren.

Beste aldetik, garai hartan bizi zen itxaropena argi eta garbi ikus dezakegu hau bezalako baieztapenetan: “*Edukiko dituzten haurrek ere euskara eginen dute*”³². Sasoi hartan ikasleen %78,2 hogeita hamar urtetik beherakoak ziren, handik dator, bada, poztasun eta ausardi hori horrelako baieztapenak egiteko. Geroago ikusi ahal izan

³⁰ Kike Amonarrirek BAT aldizkariaren 19. eta 20. zenbakietan argitaratu zuen lan horren laburpena. Artikuluen izenburuak honako hauek ziren. “*Helduen euskalduntzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*” eta “*Helduen alfabetatzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*”, hurrenez hurren. Artikulu horiek 1996ko urrian eta abenduan argitaratu ziren, beraz, sasoi horretako da helduen euskalduntze-alfabetatzearen egoera hori.

³¹ Azterketa hau JAKIN aldizkariaren 4. zenbakian argitaratu zen 1977. urtean. Hemen azaltzen diren datuak 1976-1977 ikasturtekoak dira, SIADECO taldekoek ikasiak eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundak jasoak.

³² *Ibidem*, 105. orri.

dugunez, euskara egitean hainbat eragilek parte hartzen dute, euskararen gaitasunaz aparte.

Azterketa horretan ondorio gisa azpimarratu egin zena honako hau izan zen:

- Garai hartan euskara ikasteak bazuen konnotazio politiko garbirik; jendea kontzientzia nazionalak eraginda jarri zen euskara ikasten.

Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze Mugimenduarentzako konponbideak jarri ziren, hona hemen horren gainean esandakoa³³:

- Euskalduntze Alfabetatze Mugimendua erakunde autonomo sendo bat bihurtu.
- Bere lana aurrera eramaten seriotasuna. Eraketa, klaseen antolaketa, programaketa eta abar.
- Oinarrizko euskara jatorra finkatu.
- Irakaslearen prestakuntza.

6.2.- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak (SIADECO)

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari buruzko azterketa hori, SIADECOren eskutik eta EKBk koordinatuta eta ondoko euskaltegiek bultzaturik egin zen: AEK, Bilbo Zaharra, Gabriel Aresti, Hitzez, IKA, Ilazki, Juan Mateo Zabal, Maizpide, Ulibarri eta Urrats.

Aztergai izan zen unibertsoa, euskaraz ONDO hitz egiten ez zuten pertsonak osatu zuten.

Azterketaren helburuak honako hauek izan ziren:

- 20-39 urte bitarteko biztanleriaren euskalduntze-alfabetatze maila ezagutzea.
- Biztanleriaren segmento horren behar linguistikoak identifikatzea.
- Euskaltegietan ikasi zutenen hizkuntz ezagupen-maila eta ikasketa-prozesuari buruz egiten zuten balorazioa.

³³ *Ibidem*, 106-107. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

- Euskaltegiei buruzko imajin soziala, hizkuntz mailako beharrak eta euskaltegietan matrikulatzeko aurreikuspenak ezagutzea.

Zenbaki absolutuei begira, azterketaren unibertsoa Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko erdaldunek osatu zuten, alegia, euskaraz ondo mintzatzen ez ziren pertsonak. Denetara 708.931 pertsona.

6.2.1.- Euskalduntzea**Euskara-maila eta adin multzoak**

	20-24	25-29	30-34	35-39
Ongi ulertu	22,5	21,6	16,3	13,3
Ongi hitz egin	50,5	42,6	40,3	38,2
Nekez hitz egin	51,4	43,0	36,5	32,7
Ongi irakurri	17,5	13,6	10,0	5,5
Ongi idatzi	9,5	6,0	6,4	3,3

Iturria: SIADECO

Aurreikuspen guztien arabera, populazioaren euskara-maila gorantz joango zen eta gero eta gutxiago izango ziren euskararen ezagupenari zegokionez zero mailan aurkituko zirenak. Garai horretan, 20-39 urte bitarteko populazioaren ia hiru laurdunek adierazten zuten zero puntu horretatik atereak zirela.

Horrek noski, eragin zuzena izango zuen helduen euskalduntzearen alorrean, hartuko zituen ikasleen abiapuntuko euskara-maila gero eta jasoagoa izango baitzen.

Helburuak euskara-mailari zegokionez, 20-39 urte bitarteko erdaldunen erdiak³⁴, euskararen ezagupen-maila ona lortzea zuen helburu. Beste muturrean, heren batek hizkuntzaren hobekuntzari zegokionez ez zuela inolako helbururik aitortu zuen esplizitoki. Azken multzo hau garrantzitsua zen, sozialki euskararen inguruan inolako aurrerapausorik emateko prest ez zegoen multzo zabala zegoela adierazten baitzigun, baita adin gazte-heldu horietan ere³⁵.

³⁴ Erdaldunen multzoa bi azpimultzo nagusitan banatu zen: Ia-euskaldunak eta erdaldunak. Hla ere, praktikotasunez, unibertso osoari zegokionean, “erdaldun” terminoa erabili zuten.

³⁵ BAT: soziolinguistika aldizkaria, 19. zenbakia, SEI, Andoain, 1996, 66. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Transmisio-prozesuari zegokionez, 20-39 urte bitarteko hamar erdaldunetatik bederatziren ama-hizkuntza bakarra erdara zen (%91).

Bestalde, euskararekiko jarrerak honako hauek izan ziren:

- Ia herena, oso aldekoa zen (%32)
- Ia erdia, aldekoa (%44)
- Laurdena inguru indiferenteak (%23)
- Salbuespen hutsa ziren aurka posizionatzen zirenak (%1)

20-39 urte bitarteko erdaldunen jarrera nagusia baikorra zen euskararekiko; beren burua euskararen aldekotzat jotzen zuten.

Jorratutako beste dimentsio bat izan zen biztanleria eta euskaltegiak.

Eskolatik kanpo ea euskara ikasten inoiz saiatu ote ziren, eta saiatu baldin baziren zein erataraz, galdetu zitzairen lehenbizi inkestatuei.

20-39 urte bitarteko biztanleria erdaldun gazte-helduaren multzo zabal bat aritu zen bere euskara maila hobetzen eskolatik kanpo (%41). Horietatik, gehiengoa (hiru laurden) euskaltegi-barnetegietatik pasa zen eta beste laurdenak bestelako bideak erabili zituen eskolatik kanpo, bere euskara-maila hobetzeko.

Lehen datu honek helduen euskalduntze alorrak Euskal Herriko gizartean hartzen zuen dimentsio sozial zabala azaltzen zuen. Adin horietako pertsonen artean ia herena matrikulatu zen noizbait euskaltegiaren batean: 215.000 pertsona inguru³⁶.

Adin –multzoen arabera horrela banatu ziren datuak:

	20-24	25-29	30-34	35-39	GUZTIRA
Ed/Ee	0,1	0,1	0,3	0,9	0,3
Ez, inoiz ez	55,9	99,7	57,5	62,1	58,8
Bai, euskal barne	33,2	30,6	34,4	23,5	30,4
Bai, beste erak.	10,8	9,7	7,8	13,5	10,5
GUZTIRA	26,3	24,0	24,3	25,4	100,0

Iturria: SIADECO

³⁶ *Ibidem*, 67-68 . orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Horrez gain, euskaltegietan inoiz matrikulatu ez ziren 20-39 urte bitarteko erdaldunen arrazoiak ezagutu nahi izan zituzten SIADECOKoek. Planteatu ziren arrazoiaren artean, hiru izan ziren nabarmendu zirenak.

- Tendría que dejar otras cosas (%32)
- No lo necesito (%17)
- No me interesa (%16)
- Es muy difícil (%11)

Bestalde, euskara ikasteko arrazoiak zirela eta, euskaltegiren batean inoiz izena eman zutenek honako hauek aipatu zituzten:

Para aprobar la asignatura	1,9
Porque es la lengua de nuestro pueblo	7,3
Porque no me siento cómodo/a sin saber euskera	5,5
Por los hijos/as (existentes o posibles)	5,3
Me lo exigen en el trabajo, me ayudará a encontrar algún trabajo	4,4
Para comunicarme mejor con los amigos, vecinos y otros euskaldunes	6,3
Porque quiero, porque el euskera me gusta	7,8

Iturria: SIADECO

Motibazioak horrela banatu ziren:

- Motibazio afektibo-ideologikoak izan ziren nagusi: hala nahi dudalako, maitatzen dudalako, gure herriko hizkuntza delako.
- Motibazio komunikatzaileek ere bazuten pisua: euskaldunekin hobeto komunikatzeko, ez naiz eroso sentitzen, seme-alabengatik.
- Garrantzi gutxien motibazio pragmatikoek zuten: lanean exijitu, lana aurkitzeko, asignatura aprobatzeko.

Nafarroan eta Iparraldean euskaltegietan matrikulatutakoak gutxiago izan arren. Motibazio afektibo-ideologikoetan beste guztiak baino askoz ere beroago azaltzen ziren. Oro har, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldean arrazoi komunikatzaileek beste herrialdeetan baino pisu handixeagoa hartzen zuten.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Motibazio pragmatikoen pisurik txikiena herrialde eta hiribururik erdaldunenetan jaso zen (Nafarroa, Iruñea eta Gasteiz) eta altuena berriz, Donostia eta Gipuzkoan. Zonalde soziolinguistikoa zenbat eta euskaldunagoa izan, motibazio afektibo-ideologikoak nagusiak izan arren, pittin bat epeldu egiten ziren eta pisua irabazten zuten motibazio pragmatikoek.

Ikerketa horren helbururik garrantzitsuenetariko bat, 20-39 urte bitarteko erdaldunek, etorkizunari begira, euskaltegietan matrikulatzeko zituzten asmoen inguruko informazio zehatza biltzea zen. Euskaltegietan matrikulatzeko interesari buruz galdetuta, honako erantzun hauek eman zituzten³⁷:

Interesa	Mailaketa	%
Ez	Euskaraz nahikoa badakit	0,8
	Ez naiz matrikulatuko	14,4
	Nahikoa zait eskolarekin	0,8
Beharbada	Zaila ikusten dut	23,2
Beharbada	Beharra sortzen bazait	21,9
Bai	Nahikoa interesaturik	22,9
	Oso interesaturik	8,7
Besterik/E.E.		7,2

Iturria: SIADECO

Kopuru hauek garbi adierazten zuten beraz, helduen euskalduntze-prozesuak lan-esparru eskerga izaten jarraituko zuela, hurrengo urteetan.

Bestalde, interesa izan arren matrikulatu gabe egoteko aipatzen zen ia arrazoi bakarra denbora faltarena zen.

Ikastaro desberdineko interes-mailaz itaunduta, onarpen handieneko ikastaroak ohikoak ziren: 2 ordu egunero. Interesa agertu zutenen artean erdiek baino gehiagok ikastaro-mota hau lehenetsi zuten.

³⁷ *Ibidem*, 69-70. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Oso multzo garrantzitsua eta kuantitatiboki zabala osatzen zuten bestalde, ikastaro trinkoen edo intentsitate handiko (5 orduko) ikastaroen aldeko joera agertu zutenek: %20.

Ikastaro horien bidez lortu nahi zen helburua eta helburuen lortze-mailari buruz, honako erantzun hauek jaso ziren:

Bai, nahi nuena baino gehiago	4,0
Bai, nahi nuena lortu nuen	26,8
Ez nuen lortu nahi nuena	67,1
Ed/ee	2,1

Iturria: SIADECO

Euskaltegietatik pasa ziren 20-39 urte bitarteko erdaldunen artean, gehiengoak (%67) ez zuen lortu irakaskuntza-prozesu horren bidez lortu nahi zuen maila. Herena besterik ez zen izan beraz, bere helburua lortuzat eman zuena (%31) eta beti ere kontuan izanik unibertso horretan biltzen zirenek ez zutela mintzamen-mailarik lortu³⁸.

Datuen arabera, bai objetiboki (unibertso hau osatzen zutenek ez zuten mintzamen-maila egokirik lortu), bai subjektiboki (pertsonek ez zuten lortu nahi zuten maila), helduen euskalduntzearen arrakasta-maila nahikoa baxutzat jo beharko zatekeen.

Ikasketa-prozesua eteteko arrazoiak zeintzuk ziren galdetuta, denbora falta zen erantzun zutenen artean gehien aipatzen zen arrazoa. Horrekin batera (eta aurrekoaren zehaztapen modura har zitekeen)baita lana ere.

Gogo falta adierazi zutenak ez ziren asko baina multzo esanguratsua osatzen zuten, batez ere, Bizkaia/Bilbon (%15-16) eta Donostian (%11). Arrazoi horrek zerikusia izan zezakeen helburuak ez lortu izanarekin.

Ikasketa-prozesuarekin zerikusia zuten arrazoiak ez ziren apenas aipatzen (denak batera hartuta ere inon ez ziren jasotako erantzunen %10era iristen).

³⁸ *Ibidem*, 75. orri.

Beste aldetik, pertsona horiek euskararekin zuten harremana non eta nola gertatzen zen aztertuta, honako ondorio hau atera zen: erdaldun gazte-helduen gehiengoak oso ukipen sozial eskasa zuen euskararekin³⁹.

6.2.1.1.- Ondorio nagusiak

Lan horretatik ondorio batzuk atera ziren, ondoren azaltzen direnak, hain zuzen ere:

- Euskal Herriko biztanleen euskararen ezagupen orokorra handitzen ari zen. Gero eta gutxiago ziren (eta izango ziren) batere euskararik ulertzen ez zuten euskal herritarrak.
- Ikaslean euskaltegietan “ikasten hastetik”, “ikastez bukatzera” pasako ziren. Hortik aurrera euskaltegiak, euskara ikasten “hasteko” baino, ikastetxeetan nahiz euskaltegietan hasitako euskararen ikasketa-prozesua “amaitzeko” bide izango ziren.
- Motibazio afektibo-ideologikoez bultzatu zituzten herritarrak euskaltegietan matrikulatzera.
- Denbora zen euskaltegietan matrikulatzea ala ikasi gehien baldintzatzen zuen aldagaia.
- Gutxi ziren euskaltegietan lortutako mailari eusten ziotenak: Euskaltegietatik pasatako erdaldun gehienek (hamarretik zazpi inguru) galdu egin zuten euskaltegietan lortutako euskara-maila ikasketa-prozesua etetea.
- Jatorriz erdaldunak eta euskararen aldekoak ziren. Sasoi horretan euskaraz ondo berba egitera heltzen ez ziren 20-39 urte bitarteko erdaldunen gehiengo osoa famili erdaldunetan jaioa zen (%90).
- Erdaldun horien ingurua oso erdalduna zen: 20-39 urte bitarteko erdaldunek euskararekiko ukipen gutxi zuten.
- Behar eta planteamendu berrien beharra.
- Helduen euskalduntzeak etorkizun oparora zuen, baina bere praktika optimizatu egin behar zuen⁴⁰.

³⁹ *Ibidem*, 76. orri.

6.2.2.- Alfabetatzea

Azterketa honen unibertsoa, Euskal Herri osoko 20-39 urte bitarteko euskaldunek eta goi mailako ia-euskaldunek (ondo ulertu eta inkestari erantzun) osatu zuten.

Inkesta erantzun zutenen artean honako mailaketa hau aurkitu zen:

	Berba egin	Irakurri	Idatzi
Ondo	83,3	79,0	66,2
Nekez	16,7	19,5	28,2
Batere ez	-	1,4	5,4
ED/EE	-	0,1	0,1

Iturria: SIADECO

Euskaraz ondo berba egiten zekiten 20-39 urteko euskaldunek bazekiten euskaraz irakurtzen. Jauziak eta galerak ulertzetik berba egitera eta irakurtzetik idaztera gertatzen ziren.

Euskaltegiekiko harremana ikustean 20-39 urte bitarteko euskaldunen %53 beren euskara-maila eskolatik kanpo hobetzen saiatu zirela agerian geratu zen (%42 euskaltegi edo barnetegien bidez eta %11 bere kontura). Kopurua altua zen eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen proiektzio sozial izugarria islatzen zuen.

Euskaltegietan inoiz ibili ez zirenei ea zergatik ez ziren ibili galdetu zitzaien. Hiru ziren gailentzen ziren arrazoiak:

- Nahikoa jakitea (%37)
- Astirik ez izatea (%32)
- Beharrik ez izatea (%12)

⁴⁰ *Ibidem*, 78. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

Adin-multzo desberdinak aztertuta, etorkizunerako aurreikuspenak egin zitezkeen. 30 urtez gorakoen artean ez ziren erdira heltzen nahikoa bazekitela edo beharrik ez zutela ziotenak, 30 urtez azpikoaren artean, ordea, gehienek bi arrazoietako bat aipatzen zuten, gazteenen artean %59 izatera heltzen zirelarik. Etorkizunean beraz, helduen alfabetatzearen merkatua murriztu egingo zen⁴¹.

Euskara ikasteko arrazoiei dagokienez, erdaldunen artean adinean zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta indar handiagoa hartzen zuten motibazio pragmatikoek. Euskaldunen artean berriz, ez dirudi joera hori horren nabarmena zenik.

Etorkizunerako asmoez itaunduta, erantzunak horrela banatu ziren, euskaltegi edo barnetegietan matrikulatzeko zuten interesaren arabera:

Matrikulatzeko interes-maila		%	
Ez	Euskara nahikoa badakit	18,0	21,1
	Ez naiz matrikulatuko	1,3	
	Nahikoa zait eskolarekin	1,8	
Beharbada	Zaila ikusten dut	14,9	25,4
Beharbada	Beharra sortzen bazait	25,4	
Bai	Nahikoa interesaturik	20,0	30,0
	Oso interesaturik	10,0	
Besterik/E.E.		8,6	

Iturria :SIADECO

Interesatuen proportzioak mantentzen baldin baziren ere, adin gazteenean interesik agertzen ez zutenen kopuruak eta behararen arabera matrikulatuko ziratekeenak handitu egiten ziren, multzo horretan gertatzen ari ziren hobekuntza linguistikoaren ondorioz.

Datu horien arabera bazirudien, helduen alfabetatze-alorrak artean ere lan-esparru zabala zuela, baina etorkizun hurbilean esparru hori asko murriztuko zitzaioela,

⁴¹ BAT: soziolinguistika aldizkaria, 20. zenbakia, SEI, Andoain, 1996, 72. orri

euskara-maila altua zutenak izan zirelako matrikulatzeko batere asmorik agertu ez zutenak.

Matrikulatzeko interesa izan eta ez zeundenen artean, matrikulatuta ez egoteko aipatzen zen arrazoirik nagusia denbora faltarena zen (%65).

Ikastaro-mota desberdinen inguruko interesari dagokionez, sailkapen argia atera zen, hau da, EGA batez ere 30 urtez azpikoei interesatzen zitzaien; alfabetatze arrunta, ordea, batez ere 30 urtez gorakoei.

Lortu nahi ziren helburuei buruz galdetuta, lorpen-maila oso positibotzat baloratu behar zen, ikasle euskaldun edo euskalduntutako gehienek helburuak lortu izanak (irakaskuntza mota horren baldintzak ezagutua) alfabetatze-alorraren eraginkortasuna azpimarratu zelako.

Ikasketa-prozesua eteteko arrazoiez ari zirenean, nabarmen gailentzen zen arrazoa denbora-faltarena zen (%37), ondoren lana (%17) eta maila lortu izana (%18) aipatzen zirelarik.

Beste aldetik, euskaldun horien ingurua zein neurritaraino zen euskalduna janik nahi izan zen. Nagusiki euskaraz bizi zirenak erdi inguru ziren (%49), baina orotara laurdena inguru besterik ez ziren (%28) denbora gehiena euskaraz bizi zutela ziotenak. Aitzitik beste laurden batek (%27), egunean denboraren laurdenean baino gutxiago entzuten zuela euskara erantzun zuen⁴².

6.2.2.1.- Ondorio nagusiak

- Euskaldunen hizkuntz ezagupena hobetzen ari zen. Garai horretako gazte euskaldunen gehiengo zabal bat gai zen euskaraz ondo irakurri eta idazteko.
- Aztertutako multzoa zen euskaltegietan matrikulatzeko interes-mailarik altuena zuena.

⁴² *Ibidem*, 78. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

- Motibazio afektibo-ideologikoen bultzatu zituzten euskaldunak euskaltegietan matrikulatzera.
- Euskaldunek oso helburu linguistiko eta interes desberdinak agertzen zituzten euskaltegien inguruan.
- Euskara-maila eta denbora ziren ikasi/ez ikasi gehien baldintzatzen zuten aldagaiak.
- Euskaltegietan matrikulatzeko interesa zabala zen, baina etorkizunari begira mugatua euskaldunen artean.
- Gehienek eutsi egin zioten euskaltegietan lortutako mailari.
- Helduen alfabetatzearen etorkizuna mugatua izango zela eta euskaldungoari zuzendutako eskaintzak egokitu beharko zirela egoera berrietara esaten zen.

Honaino, bada, 1996an SIADECOK egin eta BAT aldizkariak argitaratutako azterketa; luze samarra geratu zait azalpena baina, gai honen gainean dauden lanik bakarrenetarikoa denez, bidezkoa iruditu zait horren azalpen luzea egitea.

Beste aldetik, ikusitako emaitzak argi eta garbi dioskute alfabetatze eta euskalduntzea bi prozesu arras desberdinak direla. Hala ere, antzekotasunik badute.

7.- METODOLOGIA

7.1.- Erabilitako teknika

Azterketa honetan erabili ditudan teknikak bi izan dira nagusiki. Alde batetik, helduen euskalduntze-alfabetatzearen gaineko berrikuspen teorikoa edo bibliografia eta, bestetik, metodologia kualitatiboaren teknika garrantzitsuenetariko bat, sakoneko elkarrizketak, alegia. Hala ere, batzuek zein besteaz baliatzerakoan, aurretik egindako azterketek ari naiz, esan behar dut ez dagoela askorik argitaratuta. Lan honen aurrekariak ez dira asko, beraz.

Berrikuspen teorikoarekin helduen euskalduntze-alfabetatzean eragin zezaketen aldagaiak kontuan hartu nahi izan ditut, izan ere, lagungarri izan dira oso erabilitako liburu, aldizkari zein apunteetan lortu ditudan informazio eta adierazleak. Jasotako dokumentazioak lanaren nondik norakoa bideratu egin du nolabait eta elkarrizketak egituratzeko ez ezik azterketaren objektuaren (aztergaiaren) neurririk azpimarragarrienak ezagutzeko ere baliagarria izan dela esan behar dut, zinez.

Egon badira nik jorratu dudana gaia landu duten azterketak baina, egia esan, oso gutxi izan dira. Bat nabarmentzekotan, SIADECOK 1996. urtean egin zuena gorai patuko nuke⁴³. Bertan dimentsio kuantitatiboa lehenetsi egiten zen, inkesten bitartez eskuratutako informazioari ematen zitzaion garrantzia, alegia. Nirean alderdi kualitatiboa da lehenetsi egin dudana, horixe baita lan honen helburuetara ondoen egokitzen dena. Beste aldetik ere, SIADECOn azterketan ikasleen iritziak aintzat hartzen ziren soilik, aurrean daukazuen honetan, ordea, irakasleak dira azterketaren jomuga. Horrez gain, elkarrizketak burutu ahal izateko zenbait urtetan ibilitako bi pertsonak aukeratu ditut. Aukeraketa honen arrazoiak honako hauek izan dira:

- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen inguruan azken urteotako bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko aukera (elkarrizketatuak aspalditik daude euskalduntze-alfabetatzearen munduan).

⁴³ Azterketa honen aurreko atalean ikerketa honi buruzko hausnarketa egin dut, beraz, irakurleak badaki zertaz ari naizen.

- Bi errealitate soziolinguistiko desberdinetatik datozen elkarrizketatuak dira; ondorioak ateratzerakoan honek lana erraztu eta aberastu egingo didalakoan nago.
- Bakoitzak betetzen duen lanak ez du zerikusirik bestearenarekin.

Honengatik guztiagatik pentsatzen dut elkarrizketatu bakoitzaren profila osagarria izan daitekeela ikuspegi orokor bat eskuratzeko orduan.

Hauxe da metodologiaren inguruko gorabeherak baina ez da ahaztu behar lanaren egituraren bananduta agertzen diren arren baterako osagaiak direnik.

7.2.- Sakoneko elkarrizketa

Nire uste apalean metodologia kualitatibo mota honen gainean azalpentxo bat ematea komeni da, ahalik eta ondoen geroko analisia uler dadin.

Sakoneko elkarrizketa metodologia kualitatiboaren teknika bat da, metodologia horren ezaugarriak nagusia izanik gauzen eta egintza sozialen esanahiak hartzea, aurkitzea eta berregitea⁴⁴. Egoera konkretuetan egileek egintzei ematen dizkieten esanahiak gehiago bilatzen dira egintza horien errealitatea baino.

Malgutasun osoa dago, edonoiz bideratutako azterketaren dimentsioa edo hipotesia, informazio iturria edo interpretatze ildoak aldatzeko.

Gertakari sozialen eta gauzen esanahiak ikusi nahi ditugu, hots, gure elkarrizketatuentzat azterketaren objektuari buruz, alde aurretik interpretazio osatuago bat egiteko gaitasuna duena ikertzailea dela jakinda. Batutako informazio guztia soziologikoki ikertzen da berrikuspen bibliografikoaren bitartez, berrikuspen bibliografiko bikoitza eginez: elkarrizketak egin baino lehen eta elkarrizketak egin ondoren. Sakoneko elkarrizketa da, beraz, lehen esan dudak bezala, metodologia kualitatiboaren teknika bat. Zehazkiago, sakoneko elkarrizketa da informazio lortzeko teknika bat pertsona bakar batekin edo bat baino gehiagorekin hizketaldi baten bitartez ikerkuntzaren azterketa analitiko baterako edo gizarte tratamenduetan laguntzeko⁴⁵.

⁴⁴ *Metodología de la investigación cualitativa*, Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga, Bilbao, Universidad Deusto, 1999, 165. orri.

⁴⁵ *Ibidem*, 165. orri.

Nire azterketarako gidoi bakar bat egin dut; horrek ez du esan nahi bioi galdera berdin-berdinak egin dizkiedanik. Ez ditut elkarrizketak egituratu ezta galdera itxien eskema baten barruan egokitu ere⁴⁶, baizik eta, marko malgu baten ildoari jarrai diotela.

Elkarrizketak aurrera egiten zuen heinean gidoia⁴⁷ aldatzen joan da, horrela, metodologia honen malgutasuna agerian azaltzen zaigu ikertzaileak, nahi izan duenena, parte hartzeko parada izan duelako galdera batzuk argitzeko.

7.3.- Elkarrizketatuen fitxa teknikoa

Lehenengo elkarrizketatua: Euskaldunberria da, 1982an sartu zen euskaltegian euskara ikasten eta 1985ean irakasle hasi zen. Geroztik, irakasle ibili da (17 urte) eta gaur egun Bizkaiko AEKren formazio-arduraduna dugu. Didaktika arloa jorratzen du, beraz. Horretaz aparte, zenbait gauza ere egin ditu: UEUko Glotodidaktika Sailean ibilia da. Bilbon bizi da. Santutxuko Asapala Kultur partaidea eta auzo horretako “Berton” aldizkariaren kolaboratzailea.

Bigarren elkarrizketatua: Euskaldunzaharra da, gaztetan euskaraz alfabetatua eta 20 urte daramatza euskara irakasle moduan. Busturialdeko euskaltegi eta barnetegian lan egiten du (batik bat barnetegiko irakasle moduan dihardu). Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen kidea. Bestelako jarduerak ere egiten ditu, besteak beste, Ipuin kontalari dugu.

⁴⁶ *Ikerketa soziolinguistioarako metodologiak eta teknikak*, Nekane Jausoro, HIZNETeko 4. irakasgaia, 34. orri. “Elkarrizketa irekiarekin ez da bilatzen informazioa soilik; bilatzen dena da elkarrizketatuak zer eta nola adierazten duen adierazi nahi duena; izan ere, elkarrizketatuaren hizketa bilatzen da. Teknika honekin ikergaiaren profil bereziak bilatzen dira, hots, ardatz genetiko (subjektuaren ikuspegia) eta ez diskurtsuoen egitura globala (azken hau eztabaida taldearekin lortuko genuke). (...) Iraganeko ekintzen azalpena bilatzen da.

⁴⁷ Gidoia Eranskinaren atalean gehitu dut.

8.- ELKARRIZKETEN ANALISIA

Sarrera moduan esan behar dut elkarrizketen oinarria eta gidoia berdintsua izanda, bakoitzaren norabidea desberdina izan dela. Elkarrizketatuen izaerak ere erantzunak baldintzatu dituenek, eskuratutako informazioa bestelakoa izan da; hori zen biak aukeratzeko motiborik garrantzitsuena, beraz, lortutakoa baliokoa delakoan nago. Hala ere, elkarrizketa bakoitzaren tamainak batean informazio dagoela bestean baino pentsaeraz gaitzake; inondik inora. Bi elkarrizketatuen ezaugarriak arras desberdinak ziren eta oso ondo osatu dute lan honen atal metodologikoa.

a.) Lehenengo elkarrizketatua⁴⁸

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen garrantzia gaur egun: Gure elkarrizketatuaren ustez, helduen euskalduntze-alfabetatzeak euskararen normalizazio prozesuan oraindik ere badu non eragin; are gehiago egundoko garrantzia dauka euskaraz ez dakien jendea kontua hartzen badugu. Euskal Herriko biztanleriaren %60-70 erdaldunak diren neurrian, euskalduntzearen helburu izan daitezke. Horrez gain, euskalduntzat hartu izan direnen artean ere egongo dira batzuk alfabetatu gabe daudenak.

Euskal Herria euskalduntzeko bertan bizi direnek euskaraz jakin behar dute, beraz, erdaldunak egongo diren bitartean helduen euskalduntze-alfabetatzeak aurrera jarraitu behar du. Gainera, umeak gero eta euskaldunago datozela, gero eta ume gutxiago daudela kontuan hartuta, euskalduntze-alfabetatzearen esparruak gero eta txikiagoa izan beharko lukeela diosku, hori gauzak aurrera doazela seinalerik nabarmenena izango bailitzateke. Datuei begiratuta garrantzi handi eduki beharko luke baina ikusi beharko litzateke ea benetako garrantzi daukan.

Berak hitzez hitz horrela azaldu du:

⁴⁸ Atal honetan letra etzanaz idatzita dagoen guztia da elkarrizketatuek hitzez hitz esan dutena.

“Euskal Herriko populazioaren %60-70 bat ez daki euskaraz, ez da euskalduna; horretarako euskaldundu ahal dira ez?, beraz, badago zeregin bat. Euskara normalizatzeko beti izaten da lehenengo, lehenengo, lehenengo aurrerapausoa jendeak euskaraz jakitea, gero egitea beste gauza da, baina behintzat jakin. Jende guzti horrek jakin arte badago zeregina” .

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen mugimenduaren hastapenak: Bere iritziz, zehazki ez ezagutu arren, lehenengo euskaldunberriak *“gaur egun ulertzen den zentzuan, hau da, euskara borondatez ikasi zutenak”* Sabino Arana *“eta horiek guztiak”* izango ziren *“XIX. mendearen akaboan-edo”*. Hala ere, badaki horiek baino lehen egon bazirela beste batzuk euskara ikasi zutenak, baina sasi-mugimendu gisa horiek izan ziren lehenengoak.

1960. urtearen inguruan hasi zen mugimendua hau garrantzia hartzen. Oso lotuta ikusten du mugimendu hau ikastola sortze-prozesuarekin. Umeak ikastoletara joaten ziren egunez eta gurasoak gauzez gau-eskoletara. *“Hori baino lehen badakit zeozer egon zena; Euskaltzaindiaren egoitzan, Francoren denboran, ematen ziren eskola batzuk”*

Geroago euskaltegien kontua Franco hil ostean eta Trantsizio delako garaian hasi zen era masibo batean. Lehenengo eta behin gau-eskolak, eta laurogei hamarkadaren hasieran, euskaltegiak hasi ziren helduen euskalduntze-alfabetatzearen ardura eramaten. Oso modu masiboa izan zen.

“Gogoratzen naiz, bueno ni orduan ez nintzen honetan ibili baina zaharrek kontatu dabenagaitik, hemen Santutxun mila ikasle⁴⁹ ibiliko ziren euskara ikasten, borondatez gau-eskolara etortzen.”

Beharrezkoa da esatea euskaltegiak ez zirela gaur egungoak bezalakoak, ez egituren aldetik, ez bertan erabiltzen zen metodologiaren aldetik, ezta ikasten ematen ziren ordu kopuruaren aldetik. *“Izaten zen ordubete astean, ordu bi, egutegi finkorik gabe, borondate askorekin eta, egia esan, ez ziren on-onak izan zeren han ibili zen jende guztiak ikasi izan balu, hau izango litzateke la ostia”.*

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduak berezko ezaugarri batzuk bazituen. Esate baterako, bere ustez *“fenomeno bastante urbanoa izan zen, inguru erdaldunetakoa zela esan nahi dut; Bilbon, Donostian eta horrelako lekuetan hasi zen*

⁴⁹ Irakurleak jakin beza gaur egun Santutxuko euskal eskolan 500 bat ikasle daudela.

eta gero herrietara zabaldu zen". Hau azaltzeko Euskal Herrian momentu honetan 10.000 biztanletik gorako herri euskaldunik ez dagoela diosku.

Gaur egungo egoera ⇒ matrikulazioen beherakada: Berak, beherakadaz ari denean, apur bat eszeptiko samar ikusten du bere burua, duela 2 edo 3 urtetik hona gertatu den gauza delako. Gainera, laurogei hamarkadaren erdian beste beherakada bat egon zen baina ez daki zein puntutaraino den beherakada bat; lehen esan bezala, hamarkada horren hasieran nolabaiteko "boom" a egon zen euskaltegi eta gau-eskolen inguruan. Gertatu zena ez zen oso normala izan, edo hobeto esanda, gehiegi izan zen. Beraz, ekaitzaren ostean euskal itsasoa baretu egin zen.

"Laurogei hamarkadaren hasieran ematen zen dedikazioa diferentea zen, ordu gutxiago ziren, ez zegoen gaur egungo infrastrukturarik; horregatik igual orain Santutxura 1.500 ikasle etortzen badira euskara ikasten... ba ez dago horri erantzuteko infrastrukturarik,....aditu duzu?"

Beste aldetik, euskararen beraren gaur egungo egoera eta lehengoa ez da berdina. Euskara lehen sustatu barik zegoen, *"duda asko egoazan euskara modernoaren inguruan"*. Orain jendeak askoz hobeto ematen ditu klaseak, askoz hobeto daki euskaraz, hobeto prestatuta daude,....

Euskara ikasteko motibazioa: Lehen euskara ikasterako orduan motibazio afektiboa zen nagusi; hala ere ea zein izan daitekeen motibaziorik eraginkorrena euskara ikasteko galderaren aurrean, berak aitortu du motibaziorik, eraginkorrena dena, ez dagoela. Are gehiago bere ustez motibazioa, berez, da *"sustatu behar den gauza bat"*.

Sarritan, euskalduntze-alfabetatze prozesuan hastean, ikasleak prozesu hori has dezake motibazio batekin eta beste batekin amaitu, edota hasi zen motibazio berdinari etsi. Hiru motibazio mota daudela esan du: lehendik⁵⁰, afektiboa (euskara dela Euskal Herriko hizkuntza, gure hizkuntza dela, eta horrelako pentsamenduak biltzen dituen motibazioa); bigarrenik, integratzailea (herri batean txertatzeko hizkuntza bat ikastea beharrezko egiten duena, *"Alemaniara bazoaz eta ez badakizu alemaniera jai daukazu"*); eta hirugarrenik, pragmatikoa⁵¹ (lana aurkitzeko hizkuntza ikasi behar duzu). Aurrekoari

⁵⁰ Nik berak eman zuen sailkapen bera erabili dut; ordenak ez dauka inolako garrantzirik, ez du bat lehenesten bestearen aurretik.

⁵¹ Batzuek motibazio mota honi esaten diote "trukeordaineko motibazioa"

lotuta, lehen euskara ez zen inon eskatzen, beraz, motibazio pragmatikorik ia-ia ez zegoen; gehien bat motibazio afektiboa zen jendeak zeukana.

Euskalduntze-alfabetatze prozesua urteetako kontua da, ez da astebetean ikasten den gauza bat; oso prozesu luzetxoa da, beraz. Ibilbide horretan gora beherak daude eta motibazioa bata zein bestea izanik oso “gogorra” izan behar da. Motibazioaren pisua handia izan behar da ikaste-prozesuari eutsi ahal izateko.

“Euskara ikastea ez da astebeteko kontu bat, urteetako prozesua da; gora behera asko daude, gogorra izaten da batzuetan; eta gogorra egiten zaizun momentu horretan ez badaukazu atzean motibazioa, pisutsua dena, ... ostias!!”.

Bata zein bestea aukeratu arren, gogorra izan behar da. Afektiboa bada aukeratutakoa izan behar da *“kriston konpromisoa horreri aurre egiteko; integratzailea bada, hau da, zuk ikasi gura duzu komunitate batean integratzeko komunitate horrek presio egin behar du momentu guztiak pertsona horrek integratzeko gogoia eduki daian; eta motibazio praktikoan...ba berdin. Zuk jakin behar duzu lana topatzeko euskara ikasi behar duzula eta ikasiz gero, lana topatuko duzula. Baina zuk ikusten baduzu, egin behar duzun ahaleginak ez duela merezi edo bilatzen duzuna ez duzula lortuko...ba fuera!”.*

Motibazioa da landu behar den gauza bat.

Euskara kalean erabiltzekotan motibaziorik garrantzitsuenak integratzailea eta afektiboa dira, baina batez ere integratzailea. Hortaz, funtzio sozialari begira motibaziorik garrantzitsuena integratzailea da. Motibazio pragmatikoa edo praktikoa izateko, lehenengo eta behin egitura bat eduki behar da euskara eskatzen edo eskatuko duena gauza batzuk euskaraz egiteko; praktikoa izango dena. Beste aldetik, motibazio afektiboa dutenak *“normalean abertzaleak izaten dira”* eta berak nolabaiteko etsipena dagoela mundu horretan sumatzen du.

Horren aurrean edo egoera hori aldatzeko zer egin behar den itaunduta, hots, jendea motibatu lehenago edota sareak osatu galderari erantzuteko Txepetxek esaten zuena erabili du. Bere ustez lehenengo eta behin egin behar dena da *“euskaldunen komunitadea trinkotu. Euskaldunak eurak komunitate hori gorpuztu behar dute”*. Beste modu batez esanda, *“euskaldunak hasi gaitezen gauza batzuk euskaraz egiten gure artean”*.

Honelako baieztapen bat erabili du hori guztia azaltzeko:

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

“euskaldundu den jendeari horrelako sareak eman behar zaizkio, bestela galduko dugu, baina hori ez da euskalduntze-alfabetatzearen ardura soilik, euskalgintza osoarena baizik”.

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen ibilbidean egindako akatsak/hutsuneak: Ez du uste, baldin eta eskura izan diren baliabideak, arazoak, materiala... kontuan hartzen badira, akats handirik egin direnik, are gehiago *“gauzak nahikoa ondo egin dira”*. Lehengo ataltxoaren amaieran esandakoari lotuta, euskalgintza osoari zegokion ardura helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduari leporatu nahi izan zaio, hau da, euskalgintza osoak egin ez duena helduen euskalduntze-alfabetatzeak egitea nahi izan da.

“euskaldunek egin ez dauriena euskaldunberriek egitea nahi izan da”.

Akats edo hutsune bat aipatzekotan, metodologia izan da ahulen egon den arloa.

“Metodologiaren aldetik txapuzak egin dira baina igual jendeari ezin zaio gehiagorik eskatu”.

Beste aldetik, euskalduntze-prozesua hasi eta amaitu egin dutenak oso gutxi izan dira. Hor helduen euskalduntze-alfabetatzeari beti leporatu izan zaion hutsunea (eraginkortasunik ezarena) ikus dezakegu.

Izan ere, euskararen egoerak berak agian ez dio aukera handirik utzi helduen euskalduntze-alfabetatzeari, hots, ahal izan dela egin dena.

“Ahalegin horrek jan ditu beste gauza batzuetan egin beharreko ahaleginak”.

Horrekin esan nahi izan duena izan da euskaltegietatik atera direnentzat ez dela laguntzarik egon.

Lehenago aipatutakoari lotuta, ez du euskararen erabilera indartsu ikusten, hortaz, hortaz euskaldunberriek jasan behar duten zama, hau da, euskalgintzak egin ez duena beste batzuek egin beharra.

“euskara izan da autoelikatu egiten den gauza bat, gaur egun badaude euskaldun asko euskaratik bizi direnak”.

Bestelako ikastaroak (ohikoak ez direnak) eman beharra: Aukera honen aurrean etsipena atera daiteke adierazitako esaldietatik. Ohiko ikastaroetan irakasten ez diren edukiak (hizkera hobetzeko ikastaroak, euskalkiak irakastekoak, zenbait arlotako hiztegia

irakastekoak, ahozkerak lantzekoak, eta abar.) emateko ikastaroak antolatzeari buruz, ez da oso aldekoa azaltzen.

“Horrelako gauzak ez dira ikasten ikastaroetan,hizkuntza bat ondo ikasteko erabili egin behar da”.

Trantsizio bat ikusten du helduen euskalduntze-alfabetatzean. Hara, ikasten egon den jende asko nekatu egin da; beste aldetik, euskarak berak ez du presio sozialik egiten; jendea gero eta euskaldunago dator. 20-40 urte bitarteko jendea da euskara ikasten duena; horietatik asko ibilia da euskaltegietan, beraz, badaki euskaraz. Gainera, merkatua ere asko estutu egin dela onartu behar da. Demografia faktoreak zerikusia dauka merkatua estutzearekin.

Hala ere, elkarrizketatuak onartu du ohikoak ez diren ikastaroak⁵² eman ematen direla baina, egia esan, ez dakitela oso ondo nondik jo behar duten.

“Orain gabiltz tanteoan”.

Etorkizunerako perspektibak lan mundura eta etorkinek osatutako esparrura zuzentzen dira. Etorkinak oraindik ez dira asko horrelako planteamendu orokor bat egiteko baina, etorkizunean kontuan hartu beharko dira.

“Bilbon euskara ikasten zerotik hasi den jendea gehienak, denak ez, baina gehienak atzeritarrak dira”.

Euskaltegiek batera lan egin beharra: Ez du pentsatzen euren artean harreman txarrik dagoela, hau da, euskaltegien artean; egian esan, ia-ia harremanik ez dela onartu egin digu.

Administrazioak jokatu beharreko papera: Administrazioak⁵³ jokatu behar duen papera funtsezkoa da. Gaur egun ikasle batek ordaintzen duenaren heren bat administrazioak ordaintzen du. Egoera ideala izango litzateke, euskara ikastea eskubidea⁵⁴ denez debalde izan behar zen.

⁵² Ohiko ikastaroak aipatzen ditugunean egunero bi ordukoak edo trinkoak direnak (egunean 4-5 ordukoak) dira.

⁵³ Euskal Herrian EAEn baino ez dago administrazioaren aldetiko laguntza garbirik, beraz, kasu honetan EAEnko administrazioak jokatzeko duen paperaz ari gara. Hori bai, beste ideia batzuk ematerakoan, etorkizuneko jokabideak zeintzuk izan beharko liratekeen aipatzerakoan Euskal Herriko administrazio guztiez ari gara.

⁵⁴ Iparraldean ofiziala ez den heinean ez da “eskubide bat”.

Administrazioak edo administrazioek egin behar zutena da euskara “*prestigiatu*”, euskarari prestigioa eman behar diote. Euskara beharrezkoa izan behar da hainbat pertsonak motibazioa izan dezan gerora ikasten hasteko. Horixe izango litzateke administrazioen betebeharririk nabarmenena.

Giro politikoaren eragina: Giro politikoaren eragina garbia da. Euskaraz egiteari, batez ere gazteen artean, aurreiritziz betetako pentsamenduak mesfidantzaz so egiten dio oraindik ere. Euskaraz egitea bereizteko modua izango balitz bezala erabiltzen da eta hori arriskutsua da, zeren eta horrek jendea euskaraz ikasten hasteari ez dio batere laguntzen.

“Nik uste dut, batez ere jende gaztearen artean, euskalduna izatea eta euskaraz egitea.... ba beste plano batean kokatzen da.... zu beste errolo batekoa zara, ni ez naiz errolo horretakoa pentsatzen da.... Bereizteko moduan erabiltzen da eta hori peligeroso da, ze jendeak ikusten badu bere identitatea galtzen duela euskara erabiltzeagatik.... ba txarto”.

Abertzaleek pentsatzen duten euskara euren dela eta ez da horrela, euskara denona baita. Hori izan da historian zehar abertzaleek eta euskaltzaleek egin duten akatsa. Abertzaleak ez direnak euskal mundura hurbiltzea lortu behar da.

“Abertzale ez direnei esan behar zaie euskara ere zuena dela”.

Jendea zelan erakarri: Hori galdera hori, zelan erakarri orain arte euskaltegiara hurbildu ez diren horiek. Lehenengo eta behin jendea hasiko da euskara ikasten motibatuta egongo denean, hau da, motibazioa topatzean jendea euskaltegiratu egingo da. Beste aldetik, euskara-fobiak saihestu behar dira; euskararen inguruko aurreiritzi, susmoa, mesfidantzak zokoratu behar dira.

Gertaturiko gauza onak bultzatu behar dira, esate baterako, azken hamar urteetan euskaltegiek hartu duten gailentasuna. Euskaltegiak bihurtu dira harreman sozialetarako gune bat. Ia behartuta joan diren asko iritziz aldatu dira; euskaltegiek daukaten ospeaz (ondo pasatzeko eta jendea ezagutzeko lekuak direla) baliatu behar gara. Baina kontu handiz ibili behar da euskaltegiek prestatuta ez dauden gauzak egin ez ditzaten.

“AEK bat, adibidez, erabili gura izatea kultura erreferente modura.... ba zer gertatzen da?, ba horrek azken finean gainditu egiten duela. AEK-k ezin dio horri ganoraz erantzun. Hori gainera horretaz dakienak egin behar du.”

Kafe Antzokia bezalako ekimenak: Gertatzen dena da euskarak erdarak eskaintzen duenarekin ezin duela lehiatu. Erdarak eskaintzen duena beti izango da euskarak eskaintzen duena baino askoz zabalagoa. Beraz, esparru horretan lehiatzea oso zaila izango da. Hala ere, gauzak euskaraz eskaintzen jarraitu behar da, euskaldunek gero eta “euskal aukera” gehiago izan dezaten. Eskaintzak zabaldu egin behar dira, euskarak presentzia handiagoa izan behar du.

“Ondo da, baina erdarak eskaintzen duenarekin euskarak ezin du lehiatu, oso kompetentzia gatza da” .

Euskalduntze prozesua hobetzeko proposamenak: euskalduntze-prozesua hobetzeko lehenengo eta behin euskaraz gauzak egin behar dira, euskaldunen komunitatea trinkotu egin behar da. Beste aldetik ere, euskaltegi zein barnetegietan dauden ikasleei protagonismo handiagoa eman behar zaie, eurek izan behar dira protagonistak ikaste-prozesu horretan.

Irakasleek baldintza hobeak eduki behar dituzte, irakasleen papera, nolabait, duindu egin behar da.

“Jendeak euskaltegi-tako irakasleak heroes nacionales modura ikusi beharrean profesional modura ikustea gustatuko litzaidake”.

b.) Bigarren elkarrizketatua

Euskara ikasteko motibazioa: Orain arte jorratu den motibazioa afektiboa eta pragmatikoa izan dira. Motibazio afektiboa zutenak euskal kulturaren gaineko ardura zutenak ziren eta motibazio pragmatikoa edo praktikoa zutenak lan publikoari begira zeudenak ziren, hau da, herri administrazioetan lan egiten zutenak ziren. Baina demanda aldatu egin da; motibazio afektiboa jaitsi egin da eta pragmatikoa edo praktikoa orekatu egin da.

Matrikulazioen beherakada: Egia da matrikulazioetan beherakada bat izan dela; ustezko arrazoiei dagokienez, gune erdaldunak eta gune euskaldunak bereizi behar dira. Gune erdaldunetan euskal kulturari buruzko kezka edo ardura zeukaten guztiak, salbuespenak

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

salbuespen, euskaldundu ziren edo euskaldundu dira; hori dela eta, aurreko ataltxoan esan bezala motibazio afektiboa jaitsi egin da.

“Ez dogu lortu beste hori, beste zatixe, inoz beharrianik euki ez dauena dinamizatzea, euskaltegiratzea”.

Bestetik, gune euskaldunetan gertatu izan dena izan da eragiteko modua alferrikakoa izatea alfabetatzea, alegia. Ez da lortu euskaraz alfabetatu gabeko euskaldunak alfabetatzea.

“Ez dogu lortzen euskaldungo hori ekartzea lortzen”.

Ez erakartzen horren arrazoiak bilatzerakoan ez du asmatzen zein izan daitekeen horren arrazoa.

“Ez gara izan kapaz edo ez da beharrianik egon”.

Sektore errazenetara heldu da baina sektore zailenetara heltzea oztopatzen duen hesia ezin izan da bota, ezin izan da apurtu. Ikustezina da konponbideak bilatzen dituenentzat. Ezagutzen ez den gauza bat ezin da konpondu.

“Ez dago sektore gatzenetara hurbiltzea lortzerik”.

Irakasleen prestakuntza: Gaur egungo irakasleak lehengoak baino prestatuago daude. Prestakuntzaren aldetik, zenbait euskaltegitako irakasleen arteko ezberdintasunik ez dago; guztiek daukate antzeko prestakuntza.

Izugarrizko aurrerapenak egin dira lehendik hona, bai metodologian, bai gelako materialetan, bai irakasleen berezko prestakuntzan ere.

Argi eta garbi ikusten ditu arlo horretan izandako aurrerapenak baina kutsu ezkorra sumatzen da bere hitzetan aurretik aipatutakoari buruz berba egiten duen guztietan.

“Ikaragarritzko aurrerapenak izan dira irakasleen prestakuntzan baina ez dugu aurrerapenik bestien lortu”.

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen ibilbidean egindako akatsak: Euskaltegiek jendea erakartzeko burutu dituzten kanpainak, ikasturte bakoitzaren hasieran batez ere, lar orokorrak izan dira. Kanpina bereziak egin behar dira, populazio osoari zuzendu beharrean biztanleriaren sektore zehatzei zuzenduta. Horrek ez du esan nahi populazio osoari kanpaina orokorrak bideratu behar ez zaizkienik, baizik eta egin beharreko kanpainak anitzagoak izan behar direla, dinamikoagoak. Adibide bat ematen du:

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

“Seme-alaben gurasoak, umeak 0-6 urte bitarteko adinean daudenean, ilusioz beteta dagoz, motibatuta dagoz euskara ikasten hasteko”.

Beste aldetik, euskaltegiek jaso izan dituzte “A” ereduan eta beste ereduetan ere ibilitako ikasle asko, eta jasotzen segituko dute. Hezkuntzan euskara emateko metodologia aldatu beharko litzateke bertan izandako asko eta asko euskararen etsai bihur ez daitezen. Horiek ereduak ez badute jendea euskalduntze lortzen, behintzat euskarari etsai gehiago ez sortzea lortu behar da.

“Aldatu behar da guztiz euskara emateko metodologia, euskararekiko etsai bihurtu ez daitezen”.

Lehen aipatutakoaren ildotik, akatsik nabarmenena izan da populazioaren sektore bakar batean zentratzea gainontzeko sektoreak ahaztuz. Ez da lortu beste sektore horietan euskara ikasteko grina piztea. Errazenera jo izan da eta oso handia den sektoreaz ahaztu egin da.

Beste aldetik, HABE eta AEKren arteko gatazkek ez diote inolako mesederik ekarri helduen euskalduntze-alfabetatze munduari. Arazo horiek beste modu batez konpondu behar ziren sasoi batean bi erakunde horien arteko harremanak horrenbeste ozpindu ez izateko. Gainera, HABE eta AEKren artean izandako tira-bira horiek helduen euskalduntze-alfabetatzean aurreiritziak sortzea ahalbideratu dute.

Euskaldun oso ez dira ateratzen: Garrantzi handia ematen dio pertsona bakoitzaren gune soziolinguistikoari. Hots, euskaldundu den jendeak bizi den lekuaren arabera aukera gehiago edo gutxiago ditu euskara erabiltzeko; horrek baldintzatzen du asko pertsona horrek euskaltegietan edo barnetegietan lortutako gaitasunari eutsi edo galtzeko posibilitatea.

“Ez dekozu nun erabili, euskaldunak atera doguz baie ez deutsegu jokalekurik bilatu”.

Aisialdiaz hausnartu egiten du horrelako pertsonen aukera emateko ikasitakoa praktikan jarri ahal izateko.

“holako jendeari sortu beharko jakozela ba.... denbora librie emoteko baina euskaraz....”.

Ikastaro arrunten etorkizuna: Ikastaro arrunten etorkizuna ez dago batere argi, are gehiago, bere ustez aldatu egingo dira. Ikastaroen iraupena oso luzea da, hortaz, laburtu

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

egin beharko dira. Ikastaro motak anitzagoak izan beharko lirateke, hau da, bestelako ikastaroak eskaini beharko zaizkie (hizkera hobetzekoak, euskalkiak jorratzekoak, eta abar.).

Sektore pribatuan eragin beharra ikusten du. Oso garrantzitsutzat jotzen du sektore pribatua euskararen normalizazio prozesuari begira. Landu eta jorratu gabe dagoen sektorea izanda, badago hor zeregina eta non eragin.

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen erronka nagusiak: Erronka nagusia izango litzateke, lehen esan bezala, orain arte heldu ez diren sektoreetara edonola heltzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze munduak arlo horretan ezin du amore eman, sektore horretan eragiteari ekin beharko lioke.

“Nire ustez, lehen heldu ez garen sektoreetara heldu eta dinamizatu behar ditugu” .

Beste aldetik, sektore pribatuari begirako ekimenak egin beharko lirateke, eraginkorra izateko sektorerik errazenak han daudela ohartuta.

Beste erronka bat euskararen erabilera izango litzateke; zelan bultzatu euskararen erabilera. Euskaltegietatik kanpo zelan bultzatu euskararen erabilera.

“Euskararen erabilerie bultzatzea ezinbestekoa da”.

Epe laburreko beste erronka bat izango litzateke euskara irakasteko modua aldatu beharra. Eskoletan dauden ikasleak ez ditugu euskararen etsai bihurtu behar. Ez dakigu etorkizunean euskara ikasi ez duen horrek euskara ikasteari ekingo dion, baina euskararekin zerikusia duen edozerk erremen sortzen badio, euskaraz ahaztu egingo da betiko. Beraz, garrantzitsua da euskarari bidea erraztea.

Euskaltegiek batera lan egin beharra: Helduen euskalduntze-alfabetatze arloan diharduten guztiek baterako estrategia garatu beharko lukete; horren premia ikusten du gure elkarrizketatuak, behintzat. Estrategia edo plangintza horren barruan arloka egin beharko litzateke sailkapena. Horren helburua izan beharko litzateke euskalduntze-alfabetatze mundua eraginkorragoa egitea, eskaintzak ez bikoiztea indarrak alperrik ez galtzeko. Guztien artean adostu beharko litzateke bakoitzak zer egin behar duen.

“Estrategia amankomun bat egin eta horren barruan arloak banatzea; ezin gara ibili denak denetan”.

Administrazioak egin beharreko lana: Euskal Herriko administrazio-egoera korapilatsuak oztopatzen du horren erantzunbidea. Premiazko ikusten du arlo publikoa eta pribatua uztartuko lituzkeen erakunde bat sortu beharra. Zelan edo hala sortu beharko litzateke tarteko erakunde bat, non Administrazioak jokatu lukeen papera kudeatzailearena izango litzatekeen.

Eskolak emateko, metodologia aplikatzeko, irakasleak trebatzeko ardura helduen euskalduntze-alfabetatze munduan daudenek, hau da, euskaltegiek euren gain hartu beharko luketela.

Kulturgintzaren bidezko ekimenak: Kulturgintza arloa sakonago jorratu beharra ikusten du. Bere ustez hori litzateke bide bat jendea euskalduntze-alfabetatze esparrura erakartzeko. Horrexegatik Kafe Antzokia bezalako ekimenak oso interesgarriak iruditzen zaizkio.

Aisialdiko jarduerak bultzatu, babestu eta sustatu behar dira. Hori egiteko euskaltegi-tako lokalak, esate baterako asteburuetan, erabil litezkeen horrelako ekimenak garatu ahal izateko.

c.) Elkarrizketatik ateratako ondorioak (bien arteko erkaketa)

Bietako inork ez dauka makilatxo magiko bat helduen euskalduntze-alfabetatze munduak bizi duen egoera iraultzeko; bietako inor aztia ez dela jakinda eta hortik abiatuta, *arazoari* konponbidea bilatzen ez jakiteak sortutako buruhaustea nabariagoa da arazoak berak ekar diezaikeen kezka baino. Eta hori erraz antzematen da euren hizketaldietan zehar. Halaber, bi ikuspegi direnez gero, antzekotasunak topatu ditut, baita desberdintasunak ere.

Horiek horrela, biek bat egiten dute helduen euskalduntze-alfabetatzearen eremua estutu egin dela esatean. Zenbait arrazoi daude tartean baina azpimarragarria da euskalduntzeko sektorerik aproposena dagoeneko euskaldundu izanak asko murriztu duela euskalduntze eta alfabetatzearen eragite-esparrua. Izan ere, batek argi eta garbi onartu du besteak, berriz, zeharka. Pertsona asko euskara ikasten ibiliak dira eta haietariko batzuk euskaldundu egin dira eta beste asko nekatu egin dira. Horren

ondorioz gertatu dena izan da euskara ikasteko zegoen motibazioetako bat ahuldu egin dela, hau da, motibazio afektiboa.

Horren aurrean biek ezinbestekotzat jotzen dute beste sektore batzuetara heldu beharra; bietariko baten ustez sektore pribatuan begiak jarri behar ditu helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduak. Besteak horri lan mundua esaten dio⁵⁵. Argi eta garbi geratu da beraz, oraindino ere badaudela non eragin eta hara begira indarrak batu behar direla. Biek bat egin dute irizpide hori aipatzerakoan, baita horretatik eratoritzen den garrantziaz ohartzerakoan ere.

Kontuan hartu beharreko beste ideia bat da euskaltegietatik hainbat eta hainbat ikasle, gerora lorturiko gaitasunari eutsi ezin izan diotenak, pasatu izanak duen garrantzia. Inork ez du uste helduen euskalduntze-alfabetatzearen errua denik, ikasle eta ikasle izandako horiek bizi diren inguru soziolinguistikoarena baizik. Biak bat etorri dira konponbidea bilatzerakoan; euskaltegietatik kanpo euskaraz egin ahal izateko jokalekuak bilatu behar zaizkie⁵⁶. Sareak sortu behar dira eurek euskaraz hainbat jarduera, ekimen edo ekintza buru ditzaten. Besteak, sarearen terminoa erabili beharrean, atseginago ditu kultur gintzaren bidez bideratutakoak, baina azken finean zentzua bera da, nahiz eta lortzeko bidea bestelakoa izan.

Euskararen erabilerari dagokion atalean euskaltegiei inolako erru handirik leporatzen ez bazieten ere, batek iritzi kritikoa agertu du helduen euskalduntze-alfabetatzearen zenbait jarduerarekiko. Esate baterako, euskaltegi eta barnetegietan izena emateko burutzen ziren sentsibilizazio kanpainetan. Bere ustez orokorregiak izan dira eta jendea erakartzeari begira ez dira oso eraginkorrak izan, edota lortutako

⁵⁵ Nire ustez garrantzitsua da esparru hau dagoeneko jorrotzen duten ekimenak aintzat hartzea; hortaz, EMUN Kooperatibak egiten duen lana. “EMUN enpresei aholkularitza-zerbitzu aurreratuak eskaintzeko enpresa bat da. EMUNek enpresei eskaintzen dizkie zerbitzuak bi arlo nagusitan sartzen dira: batetik, hizkuntz normalizazioa lan-munduan, eta bestetik aholkularitza.

Lehenengoan, EMUNek plan orokorrak zertzen ditu enpresan euskararen erabilera areagotzeko. Atal honetan *bideragarritasunaren azterketak, plangintzaren diseinuak eta plangintzaren inplementazioa eta dinamizazioa* eskaintzen ditu, baita *euskara teknikoak lantzeko ikastaroak, itzulpenak eta zuzenketak, edo langileak hautatzeko euskara-probak*.

Aholkularitza eta kontsulta-zerbitzuek aholkularitza osoa eskaintzen diote enpresari, bai ikuspegi juridikotik (administrazio, elkartze eta beste zenbait arlotako zuzenbideaz), bai ekonomikotik (zergak, kontu-ikuskaritza, *berrikuspen mugatuak, txosten eta ziurtagiri bereziak, enpresen balorazioa*, eta abar.) euskaraz beti”. www.euskoop.org

⁵⁶ Honen ildotik Pasai Antxon ekimen bat abian jarri zen “Kuadrillategi”, hain zuzen ere. Bertan, “euskara ikasteko ohiko estrategiaz gain (euskaltegietan erabili ohi direnak alegia), berezko taldeak (lagun taldeak, familiak...) euskara ikasteko gune aproposak direla defendatzen da eta Pasai Antxon gazte lagunarte batek bere burua euskalduntzeko eginiko bi urteko esperientziaren berri ematen du”. Beste aldetik, informazioa gehiago izateko ikusi Eranskina.

Gizarte sareen metodologia, Kontxesi Berrio-Otxoa, HIZNETEKO 5. irakasgaia, 34. orri.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

emaitzak hobe zitezkeen. Horrez gain, helduen euskalduntze-alfabetatze munduak ez du jakin biztanleriaren sektore guztietara. Ohiko ikastaroak ere aldatu edo berregokitu beharko lirateke. Hortaz, beste motatako ikastaroak ematearen premiazkotasuna bere iritziz. Beste elkarrizketatua, ordea, ez da horren kritikoa azaldu mugimendu honek hainbat urtetan egin duen lanarekiko. Bere ustez baliabideak zeintzuk izan diren kontuan hartuta egindakoa ontzat eman du. Ikastaro bereziagoak emateko aukeraren aurrean ez da oso ilusionatuta agertu horrelako bideak jorratzea interesgarria iruditzen bazaio ere.

Euskararen inguruan hainbat aurreiritzi sortu izan dira eta horrek, jakina, ez dio inolako mesederik egiten euskarari berari, ezta helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduari ere. Biak bat etorri dira horretan, euskara-fobiak saihestu behar direla eta euskararen etsairik ez direla sortu behar esatean.

Biek garrantzi handia ematen diote administrazioak edo administrazioek jokatu behar duten paperari. Bietako baten ustez, administrazioaren papera izan behar da ikastaroen doakotasunaren bermatzailearena eta euskara lehenetsi behar duen arduradunarena. Besteak bestelako erantzukizunak aldarrikatzen dizkio administrazioari, arlo pribatua eta herrikoa uztartze-eragilearena, hain zuzen ere.


Berriro ere biak ados daude irakasleen prestakuntzan izugarrizko aurrerapenak egon direla esaten dutenean. Irakasleak inoiz baino prestaketa hobearekin daude. Gainera ez dago alde handirik euskaltegien artean. Euskaltegi guztiek antzerako prestakuntza ematen diete bertako irakasleei. Hori bai, horrek ez du esan nahi irakasleen “figura” duindu behar ez denik. Bestetik, bakar batek alfabetatzearen arrakasta eskasa aipatu digu, euskaldunetatik oso gutxi hurbildu dira alfabetatze-esparrura.

Amaitzeko, bien ustez datozen urtetarako helduen euskalduntze-alfabetatze munduaren erronka nagusiek osatutako sailkapena egingo dut⁵⁷, geroko proposamenak osatzeko baliagarriak izango direlakoan:

- Jendea motibatu/motibazio positiboa
- Euskara-fobiak saihestu
- Euskaltegien ospe onaz baliatu
- Euskaraz jarduerak egiteko eskaintza zabaldu
- Protagonismo handiagoa ikasleei

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

- Irakasleen papera duindu gizarteari begira
- Gizartearen gainontzeko sektore berrietan eragin
- Erabilera bultzatu
- Euskararen etsairik ez
- Sareak osatu
- Lan mundua kontuan hartu



⁵⁷ Agertzen den hurre...

...bestelako

9.- EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA HOBETZEKO ZENBAIT PROPOSAMEN

Orain arte ikusitakoa ikusita eta atal teorikoa zein metodologikoa aintzat hartuta, lanari amaiera emateko ordua heldu da; horretarako jasotako informazioa ondo aztertuta helduen euskalduntze-alfabetatze munduari laguntzeko proposamen batzuk aipatuko ditut. Horiekin espero dut harroegia edo arduragabeegia ez izatea; gai honi buruzko ezagutzaz, lehendik neukanaz eta azterketa egitean eskuratutakoaz, baliatuta egokienak deritzedanak baino ez ditut aukeratu, hori bai beti eginkorrak eta eraginkorrak izatea bilatu nahian. Beraz, txikia izan badaiteke ere, ekarpenen bat egingo dutelakoan hona hemen proposamenak:

1.- Argi geratu da giro politikoak eragina izan duela, duela eta izango duela helduen euskalduntze-alfabetatze munduan. Nire ustez, mundu honek egoera egonkorra behar du. Ibilbidea luze samarra denez, ahalik eta eramangarrien izatea lortu behar dugu, beraz, aldats, oztopo eta errebolta guztiak saihestu behar ditugu. Helduen euskalduntze-alfabetatzea **unean uneko giro politikotik isolatu behar da**. Horretarako interesgarria izango litzateke kutsu politikoa duten jardueretatik bereiztea. Honek ez du esan nahi hizkuntzalaritzan eta soziolinguistikan hartzen diren erabakien gaineko iritzirik plazaratu ezin daitezkeenik.

2.- Nire uste apalean, **Euskal Herriko administrazio guztiekiko hitzarmena egitea** behar-beharrezkoa da, **non helduen euskalduntze-alfabetatzea hobesteari begira arlo publikoa (administrazioen ingurukoa) eta arlo pribatua (beste guztia) uztartuko den. Tarteko erakunde bat sortu behako litzateke komuneko estrategiak garatzeko, beraz.** Horrela mugimendu honen indarrak hobeto aprobetxatuko lirateke. Bakoitzaren betebeharrak, helburuak eta esparruak zehaztuz, eraginkorragoa izango litzateke. Zerbitzuen bikoizketa ekidingo litzateke.

3.- Horrez gain, **administrazioek euskarari prestigioa eman behar diote.** Euskara aldarrikatu behar dute kanpoko zein barneko harremanetan komunikazio-hizkuntza gisa. Ez dira zein bezerok euskaraz egingo zain geratu behar, baizik eta Administrazioek eurak aurea hartu behar diote herriari eta eredu bilakatu behar dira.

4.- Bai gure lanean, bai aurretik eginikoetan ere euskaltegia ez joateko edo ikaste-prozesua eteteko arrazoietakoa bat denbora-falta izan dela eta dela argi eta garbi ikusi dugu. Hori saihesteko, eskaintzen dena malgutu beharko litzateke, hau da, eskaintza aniztu. Ohiko ikastaroak, nahiz eta batzuen ustez euskara ikasteko modurik onena izan, malgutu beharko lirateke. Gaur egungo lan egoera aldatu den heinean (aldi baterako kontratuak, ordutegiak, eta abar) eskaintza horretara egokitu beharko litzateke.

Laburbilduz, **ikastaro malguagoak eskaini beharko lirateke ikasleei protagonismo handiagoa emanez.**

5.- **Oraindik euskalduntze-alfabetatze mundura hurbildu ez direnei hurbildu beharra dago.** Horretarako dinamikoago jokatu beharko lukete euskaltegiek; batez ere, kanpainak egiterakoan. Kanpaina orokorrak egin beharrean zehatzagoak egin beharko lirateke. Orain arte egindakoak lar pasiboak izan dira, hots, euskara ikasteak merezi zuela esaten zen eta kito. Euskaltegiak non zeuden esaten zen eta jendea noiz etorriko zain geratzen ginen. Nire iritziz okerreko planteamendua egin da. Jendearen bila joan behar da, ikusi zein aukera dagoen eta horretan eragin. Adibidez, 0-6 urte bitarteko umeen gurasoak motibatuta egon ahal dira euskara ikas dezaten, seme-alabei euskaraz egiteko aukeraz eta gazteak izateaz baliatu beharko litzateke helduen euskalduntze-alfabetatzea kanpaina ausart eta zuzena egiterako orduan. Nolabait, euskalduntze mugimenduaren hasierara itzuliko ginateke, egunez umeak ikastolara eta gauez gurasoak gueskoletara joaten ziren garai horretara, hain zuzen ere. Orduan bazegoen

motibazio handia. Ez dugu ahaztu behar hainbat eta hainbat gurasok umeak bidaltzen dituztela ikastoletara edo “B” eta “D” ereduko ikastetxeetara erdaldunak izanda. Esanak esan, kanpaina lar orokorrak ziren horiek ahaztu beharko lirateke, sentsibilizazio kanpainak izaten baitziren gehien bat. Hori egitea ez dagokio helduen euskalduntze-alfabetatze munduari, euskalgintza osoari baizik.

Aktiboago jokatu beharko lukete euskaltegiek euskalduntze-alfabetatze prozesuetara oraindik hurbildu ez diren horiek gertura daitezen.

6.- Askotan aipatu izan da euskaltegi eta barnetegietan ibilia den jendeak ezin izan diola ikasitakoari eutsi eta azkenean galdu egin duela. Nik uste dut euskalduntze-alfabetatze zentroetatik kalera dagoen jauzia arinago **egiteko ikastaro zubiak eskaini beharko liratekeela**. Hots, gidatzeko baimena ateratzen dugunean urtebete eroan behar dugu “L”a. Horrek esan nahi du beste gidariak duten trebeziarik ez dugula. Sarri askotan, bestalde, ondoan ama edo aita dugu aholkulari eskarmenturik ezak eragiten dituen “akatsak” zuzen diezazkiguten. Autoeskoletan funtsezkoa ikasi dugu baina gidari trebeak, besteak bezalakoak behintzat izateko oraindik falta zaigu. Euskalduntze-alfabetatze prozesuetan antzeko gauza bat gertatzen da. Euskara erabiltzerakoan ez badute gure burua seguru ikusten mesfidantzak hasiko dira eta egiteari utziko diote. Ikasitakoa galduko dute, hortaz. Halaber, bestelako ikastaro mota (ahozkatzea lantzekoak, hizkera hobetzekoak, euskalkiak jorratzekoak, idazkera lantzekoak, ...) eman beharrari interesgarria eta lagungarria izan daitekeela deritzot. Gainera, helduen euskalduntze-alfabetatze munduan orain arte zeharka⁵⁸ sartu den populazio sektore bat sartuko litzateke eragite-esparru horren barruan: Ikastoletatik ateratzen diren ikasleak (batez ere inguru erdaldunetakoak), matematikako ariketa bat goitik behera euskaraz azaltzeko gai direnak baina eguneroko harreman sozialen sareetan erdara erabiltzen dutenak euskaraz egiteko gauza ez direlako. **Ikastaro bereziak eman beharko lirateke, beraz.**

7.- Aurrekoari lotuta eta euskaltegiak askotan harremanak egiteko gune bilakatu direla kontuan hartuta, **aisialdiko jarduerak bideratzeko aukera eskaini beharko lukete** helduen euskalduntze-alfabetatzean ibiltzen direnek. Euskarazko sareak osatzeko

beharrezkoa da horrelako ekimenak burutzea. Euskaltegietan ibilitakoek ikusi behar dute behin euskalduntze prozesua amaituz gero, badagoela euskaraz egiteko jokalekurik, egindakoak merezi izango duela.

8.- Orain arte alfabetatzeak bete duen papera berraztertu beharko litzateke. Gune euskaldun askotan euskaraz alfabetatu gabeko euskaldun asko daude oraindik eta helduen alfabetatze mugimenduak ez du erakartzen jakin. Emaitzek esaten digute joan direnen artean, orokorrean, datuak nahikoa positiboak izan direla. Beraz, horretaz baliatu beharko lirateke jendea erakartzeko. Argi dago asko oso zaharra direla eta horiek ikaste prozesuan sartzea sano zaila izango dela, baina oraindik badaude euskaldunen populazioan eragiteko sektore batzuk. Horiei zuzendu behar zaizkie ahaleginak. Lehen esan bezala, alfabetatu den jendea erabili beharko litzateke kanpaina berezietan amu bezala.

Amaitzeko, nire iritziz alfabetatzea garrantzi estrategikoa duen arloa da eta euskalgintza bultzatzeari begira interesgarria izango litzatekeela mintzamenak baino ez dituen aktiboak irakurmenak eta idazmenak irabaztea ere.

⁵⁸ Zeharka esan dut orain arte horietarik asko EGA eta horrelako tituluak euskaltegira etorri izan direlako,

10.-ERANSKINA

10.1.- Elkarrizketetan erabilitako gidoia

HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE MUNDUAK, EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN ERAGINKORRAGOIA IZATEKO, ETORKIZUNEAN JOKATU BEHARREKO PAPERAK.

Zenbat urte daroazu euskalduntze-alfabetatze munduan.

Zein papera betetzen duzu gaur egun helduen euskalduntze-alfabetatze prozesuan.

Zenbait irizpide:

beraz, euskaltegiekiko harremana izan dute nolabait.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

-
- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen garrantzia euskararen normalizazio prozesuan. (Ikastolen sorrerarekin dena eginda zegoela ematen zuen)
 - Helduen euskalduntze-alfabetatzearen hastapenak ⇒ bilakaera historikoa.
 - Euskalduntze-alfabetatzearen gaur egungo egoera.
 - Matrikulazioaren beherakada.⇒Ikastolen eragina
 - Euskaltegiek duten irudia
 - Irakasleen prestakuntza.
 - Lehenago egoera eta gaurkoa, zertan bereizten dira
 - Egoera: militantzia
 - Soldata
 - Motibazioa ⇒ beste lanpostu batera zubia
 - Ikasleen motibazioa: “Gure hizkuntza berreskuratzeko asmotik lanerako hizkuntza lagungarri bezala ere ikustera”
 - Motibazio sinbolikoak (izanarazleak) ↔ trukeordaineko motibazioa (pragmatikoa)
 - Euskalduntze-alfabetatzearen ibilbidean egindako akatsak.
 - Eraginkortasunik eza ⇒ euskaltegietatik pasatzen diren ikasleak gero ez dute euskara normaltasunez erabiltzen gizartean, hau da, ez dira euskaldun oso ateratzen
 - Euskaldunberrien aurreiritziak
 - Bestelako ikastaroak (ohikoak ez direnak) eman beharra
 - Ikastaro trinkoen etorkizuna

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

-Horri lotuta \Rightarrow ikastolakumeengan eragin beharra

-Alfabetatzeari garrantzi handiagoa eman beharra

- Kafe Antzokia bezalako ekimenak
- Nora doa euskalduntze-alfabetatze mundua? \Rightarrow erronka nagusiak.

Ikasleen eta irakasleen motibazioa

Euskaltegien papera \Rightarrow ez ote dira tituluak lortzeko tresna soilak

Gizarte-aldaketa \Rightarrow horretara moldatu beharra

- Helduen euskalduntze-alfabetatze munduan jarduten duen orok batera lan egin beharra.
- Administrazioak egin beharreko lana.
- Euskalduntze prozesuaren bilakaera:

Ikas prozesua (Prozesu akademikoa) \Leftrightarrow hizkuntz prozesua (P. Akademikoa + kaleratze prozesua).

\Downarrow

\Downarrow

Euskaltegian hasi eta amaitu

Euskaltegian hasi eta kalean amaitu

{Mugak

Ezaugarriak } Zelan eragin

- Euskalduntze prozesua hobetzeko proposamenak

Baliogarriak izango dira jendea euskalduntzeko?

Zelan lortu jendea euskalduntze-mundura erakartzea?

10.2.- Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia/Kuadrillategi

Kuadrillategi programak Jauregiren doktorego tesian du oinarria (Jauregi, 1994). Tesiak, euskara ikasteko ohiko estrategiaz gain (euskaltegietan erabili ohi direnak alegia), berezko taldeak (lagun taldeak, familiak...) euskara ikasteko gune aproposak direla defendatzen du eta Pasai Antxon gazte lagunarte batek bere burua euskalduntzeko eginiko bi urteko esperientziaren berri ematen digu.

Proiektua osorik azaltzeko aukerarik ez badugu ere, harreman sareekin duen harremana begi-bistakoa da. Proiektuaren oinarria, esan dugun bezala, euskara ikasteko lagun taldea harreman sare egokia dela da. Horretarako, taldeko kide guztiek hartu behar zuten parte proiektuan (kide euskaldunek, ia euskaldunek eta erdaldunek).

Behin taldeko kideek asmo hori azaldutakoan (horretarako gai azaltzeko lan handia egin zen, herriko kuadrillen mapa osatu...), lagun taldearen soziograma egiten zen (harreman sareen teknika erabiliz). Soziograma horrek, taldeko kideen kopuruaz gain (eta kide bakoitzaren hizkuntza gaitasunaz gain), beraien arteko harremanak (zenbat, zein hizkuntzatan...), kideen kokapena (azpitaldeak, liderrak...) eta, oro har, taldeko hizkuntzazko ohituretan eragiteko eskaintzen zuen. Soziograma horretatik eta taldeekin egindako negoziazio bilera batzuen ondoren, taldeko kide bakoitzarentzako eta talde osoarentzako esku-hartze programa bat prestatu zuten (euskarazko eskola batzuk erdaldun hutsentzat eta ekintza plan bat kuadrilla saioak kuadrilla bakoitzarentzat).

Proiektuan, ordea, hainbat kuadrillek (harreman sare) parte hartu zuten eta horien artean batzuk mistoak ziren (kide euskaldunak eta erdaldunak zituztenak) eta beste batzuk berriz euskaldunak (ekintza planean parte hartzeaz gain, laguntzaile funtzioa bete zutenak). Edozein kasutan, harreman sarearen kontzeptua ez zen soilik kuadrilla barrurako erabili. Aitzitik, kuadrillen arteko harreman sarea ere oso kontuan hartu zen.

Kuadrillategiren hiru urte horietako esperientzia, eta gaur egun gauzatzen ari den ikerketa esku-hartzea, harreman sareen diagnosirako eta esku hartzerako baliagarritasun adibide bizia dira.

11.- BIBLIOGRAFIA

- *Alfabetatzeaz* (ELE 8), AEK, Bilbo, 1991.
- *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*, Zesar Martinez, Nekane Jausoro, Kontsesi Berrio-Otxoa. Olatz Altuna, HIZNETeko 4. irakasgaia.
- *Gizarte sareen metodologia*, Kontsesi Berrio.Otxoa, HIZNETeko 5. irakasgaia.
- *Euskalgintzaren nondik norakoak*, Iñaki Arruti, HIZNETeko 9. irakasgaia.
- *Hizkuntza-normalkuntzarako plangintza estrategikoa*, Joxe Jabier Iñigo, Imanol Esnaola, HIZNETeko 17. irakasgaia.
- *Euskalgintzaren baliabideak*, Jose Mari Zendoia, HIZNETeko 18. irakasgaia.
- *Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz*, Pedro M. Legarreta “Albaro”, JAKIN aldizkaria 4. zk., Tolosa, 1977.
- *Helduen euskara-ikaskuntza hizkuntz normalizazioari begira*, Erramun Osa, JAKIN aldizkaria 59. zk. (Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean), Tolosa, 1990.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak

- *Motibazioa eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza*, Ana Eizagirre eta Javier Isasi, JAKIN aldizkaria 59. zk. (Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean), Tolosa, 1990
- 2000ko abenduaren 26ko Euskaldunon Egunkaria: “*Beherakada hausnartzen*”.
- *Un futuro para nuestro pasado*. Jose M^a Sánchez Carrión “Txepetx”, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, Donostia.
- *Bergarako egoera soziolinguistikoa: euskaltegien ekarpena*. Iñaki Martínez de Luna, Bergara, 2000.
- *Helduen euskalduntzea: Eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*, Kike Amonarriz, BAT: soziolinguistika aldizkaria, 19. zenbakia, SEI, Andoain, 1996.
- *Helduen alfabetatzea: Eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*, Kike Amonarriz, BAT: soziolinguistika aldizkaria, 20. zenbakia, SEI, Andoain, 1996.
- *Metodología de la investigación cualitativa*, Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga, Bilbao, Universidad Deusto, 1999.
- *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna*, Lore Erriondo, Xabier Isasi, Fito Rodriguez, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1993.
- www.aeknet.net.
- www.eustat.es.
- www.euskoop.org.
- *Testuak aztertzen: testu tekniko era literarioen iruzkina*, Joseba Butron, Jokin de Pedro, 1994.
- *Diccionario de Sociología*, Nicholas Abercrombie, Stephen Hill, Bryan S. Turner, Cátedra, 1992, Madrid.
- *Giro urbanoko gazteak eta euskara*, Marije Lezeta, Elena San Mrtin, Udako Euskal Unibertsitatea, 1991, Bilbo.
- *Soziolinguistika gazteentzat*, Jordi Sole i Camardons, Udako Euskal Unibertsitatea, 1991, Bilbo.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak
